

**BARRUAN,  
ZURE HERRIKO  
ALDIZKARIA**



**EZTABAIDA: DURANGOKO AZOKAN, EUSKARA  
HUTSEZKO PRODUKTUAK BAKARRIK? /7**

# Goienka

EGUAZTENA • 2001eko abenduaren 5a • II. urtea • 44. zenbakia • DOAN BANATZEKO



## Goienka2a

Debagoiena ere  
izango da Durangoko  
azokan

## DEBAGOIENA

Mankomunitateak gertu  
dauka 2002ko aurrekontuen  
zirriborroa /3

## AITZIBER ARREGI

*"Unibertsitate Lege  
berriak ez die erantzuten  
gizartearen beharrei" /9*



ENEKO AZKARATE

## Ibarreko 250 neska-mutil kantari

Lausardi Koru Sinfonikoko zuzendari David Azurtzaren *Horra Mari!* ipuina kantatu zuten Debagoieneko 250 neska-mutikok joan zen domekan Bergarako pilotalekuan. Arrasateko Goikobalu Txiki eta Gaztek, Bergarako Mariaren Lagundiko eta Musika Eskolako Haur abesbatzek eta Orfeo-i Gazteak, eta Oñatiko Txantxiku ikastolako eta Musika Eskolako abesbatzek kantatu eta antzeztu zuten *Horra Mari!* Eguberriko ipuina. Donostiako Conjunto Barroco taldearen laguntza ere izan zuten neska-mutikoek. Emanaldia Arrasaten ere egingo dute urtarrilaren 12an.

## BALIABIDE GUTXIKOENDAKO ZERBITZU BERRIA

# Laguntza psikologikoa famiendako

Psikologo edo aholkulari baten laguntza gero eta preziatuagoa da nonahi. Ordaindu ezin dutenek izaten dute, gainera, psikologoaren edo aholkularien premia han-

diena. Egoera horri erantzuteko, zerbitzu berezi bat dago abian Debagoiengan: terapia psikologikoa doan eskaintzen duen kontsultategia. /2-3

## Eraikuntza arloko lan-baldintza eskasak salatu dituzte sindikatuek Bergaran

Bereziki eraikuntza arloko langileek bizi duten lan-baldintza eskasengatik, protesta egin dute ELA, LAB eta ESK sindikatuek.

Protesta ekitaldia astelehenean egin zuten, joan zen astean Bergarako saihebidetan gertatutako lan istripua dela eta. /3

## Oñatiko gida komertziala aurkeztuko dute

Laixan elkarteak bi urtean behin argitaratzen duen *Oñatiko Gida*

*Komertziala* gaur aurkeztuko dute Oñatiko kultura etxean. /4




**COMERCIAL BRUNET**

**MOTOZERRA ESKAINTZA BEREZIA!**

Motozerra zaharra ekarrita,  
**37.398 pta.**-raino emango dizkizugu



Ozaeta 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52



Iban Arantzabal, bost milioi pezetako txeketa eskuetan daukala.

E.A.

## SARIA

### Iban Arantzabal elgetarra izan da ekintzailerik onena

Kutxak antolatutako Ekintzaileren Lehiaketan lehen saria jaso du Iban Arantzabal elgetarrak. Bost milioi pezeta eman dizkio- te, eta esan digunez, "orain proiektua garatzea pentsatzen dihardut. Diruarekin Gaztelupeko Hotsak-en web orria berri- tuko dugu". MP3 formatuan, musika internetez zabaltzea pro- posatzen du Ibanen ideiak.

# Terapia, ordaindu ezin dutenendako

## Baliabide gutxikoendako zerbitzu berria

LEIRE KORTABARRIA

**P**sikologo edo aholkulari baten laguntza gero eta preziatuagoa da nonahi. Horrelako gero eta profesional gehiago dago, eta gero eta espezializazio handiagoa, gainera: terapia orokorra eskaintzeaz gain, gai zehatzen inguruko aholkularitza ere eskaintzen dute.

Jakina, baina, psikologoaren zerbitzuak ez dira musu truk eskuratzen. Eta badago horrelakorik ordaindu ezin duen jendea. Paradoxikoki, gainera, ordaindu ezin dutenek izaten dute, hain justu, psikologoaren edo aholkularien premia handiena. Debagoienean ere badago horrelako jende dezente.

### DOANEKO ZERBITZUA

Egoera horri erantzuteko, zerbitzu berezia dago abian: baliabide ekonomiko gutxi dituzten debagoiendarrendako terapia psikologikoa doan eskaintzen duen kontsultorioa.

Sara Vitoria eta Monika Guillorme psikologoek antolatu dute. Borondatez egiten dute lan, eta astean lau orduz jasotzen dituzte bezeroak: bikoteak, familiak, edo bakarka doazenak.



LEIRE KORTABARRIA

Araozak dituzten bikoteak joaten dira, besteak beste, laguntza psikologiko eske, eta bakarkako edo familiako kasuak ere aztertzen dituzte.

**Giokela, Okel  arbia Muturretik Buztanera**

**Giokela, Berme Osoko Okela**

**Giokela, Kalitatezko Okela**

**Ez guk, Certicar-ek ziurtatua**



**OÑATI**  
TXANTXIKU Harategia  
Arantzazu, 2


**ANTZUOLA**  
MUJIKHA Harategia  
Kalebarren, 1

**ARRASATE**  
J. ELORTZA Harategia  
Juan Bengoa, 1  
J.R. OTAMENDI Harategia  
Ferrerías, 20

**SALABERRIA Harategia**  
Mondragones z/g (azoka)  
**AGIRRE-ETXE Autozerbitzua**  
Zarugalde, 33

**BERGARA**  
URCELAY Harategia  
Ibargarai, 16  
JON LETURIA Harategia  
Pedro Deuna, 24

**L. M. REZOLA Harategia**  
Matxiategi, 7



**Zer jan, hura izan**

SARA VITORIA / TERAPIA ZERBITZUKO ARDURADUNA

## “Baldintza bakarra, bezeroa diru baliabide eskasekoa izatea da”

Sara Vitoria 27 urteko arrasatearra dugu. Psikologoa da, bikote eta familia terapian espezializazioa bukatzen dabil, eta Debagoieneko doaneko terapia zerbitzuko arduraduna da.

**Zelan jaio zen doaneko terapia zerbitzuaren proiektua?**

Gaur egun, psikologo profesional eta espezializatuen eskaria gero eta handiagoa da, baina badira zerbitzu hori ordaindu ezin duten pertsonak. Horien behar psikologikoei erantzuna emateko, badaude doaneko zerbitzuak Donostian, Bilbon eta Beasainen, eta pentsatu nuen Debagoieneko jendeak ere bazuela horretarako eskubidea. Hortaz, egitasmo hori aurrera eramaten saiatzea erabaki nuen.

**Hortik aurrera, zein pauso eman behar izan zenituen?**

AVAPSIko kide naiz -Euskadiko psikoterapia dinamiko eta sistemikoen elkarte-, eta elkarre horrek bideratzen ditu Donostia, Bilbo eta Beasaingo zerbitzuak. Horietan oinarrituta, proiektu bat idatzi nuen, eta Saio-lan enpresari aurkeztu nion. Saio-lanek arlo askotako proiektuak ikertzen ditu, eta, bideragarri badira, baliabideak ematen dizkie. Bestalde, AVAPSIk eta Arrasateko Caritas erakundeak hitzarmena sinatzea bideratu nuen, Arrasateko parrokoaren laguntzarekin. Irailetik aurrera dago zerbitzua martxan.

**Zeini zuzendua dago, eta zer eskaintzen da zehatz-mehatz?**

Lokala Arrasaten egon arren, Debagoiena osoko jendearen esku dago zerbitzu hau. Doanekoa da, eta baldintza bakarra, erabiltzaileak diru baliabide eskasekoa izatea da. Bi psikologo gabiltza



“Psikologoarengana joateko zoratuta egon behar denaren ideia aldatzen ari da, zorionez”

“Jende gehiago ez bada etorri, zerbitzu hau dagoenik ere ez dakitelako izan dela uste dugu”

lanean, eta beste edozein psikologo kontsultak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu, alegia, psikologia aholkularitza eta terapia.

**Jendeak zuengana zuzenean etorri beharra du?**

Ez. Debagoieneko herrietako

Caritas erakundera jo behar dute. Izan ere, guk ez dugu neurtzen erabiltzaileen maila ekonomikoa: hori Caritasek egiten du, eta eurek bidaltzen digute zerbitzu honen beharra duela iruditzen zaien jendea. Udaleko zerbitzu sozialetako sailarekin elkarlanean ere bagabiltza, eta hara ere joan daitezke interesa dutenak.

**Zein herritako jendea etortzen zaizue gehienbat?**

Orain arte, Arrasateko eta Oñatiko jendea etorri zaigu. Dena dela, jende gehiago ez bada etorri, zerbitzu hau dagoenik ere ez dakitelako dela uste dugu.

**Zein arazo mota mahairatzen ditu jendeak?**

Denetarik dago: alargunak, banandu berri direnak, tratu txarrak jasaten dituztenak... Seme-alabengatik arduratuta dauden aita-amak ere etortzen dira. Gaur egungo gizartean, psikologoarengana joateko zoratuta egon behar denaren ideia aldatzen ari da, zorionez. Mota askotako zalan-tzek eta arazoez eraman gaitzaketek psikologoarengana: drogak, depresioak, estresa; autoestima, komunikazio edo sexualitate arazoak; langabezia, familiaren baten heriotza, eskola porrotak, bakar-dadea... Horiei familia ereduia izaten ari den aldaketak gehitu behar dizkiegu: banaketak, seme-alaba kopuruaren murrizketa, bikote homosexualak, guraso bakarrek familiak, harrera familiak... Kasu horiek ere lantzen ditugu.

**Kasu zailen bat aurkezten badizuete, zer egiten duzue?**

Zailak baino, botikak behar dituztenak suerta daitezke. Psikologok ezin dugu botikarik errezetatu; hortaz, era horretako kasuren bat aurkezten badigute, psikiatrarengana bideratu behar-ko genuke. /L.K.

## Oraindik badago doan lan egiteko borondatea

Sara Vitoriak eta Monika Guillorme terapeutek ez dute ezer kobratzen eskaintzen duten zerbitzuarengatik. Lau ordu eskaintzen dizkiote lan horri astero-astero.

Borondatez lan egiten dutela harriduraz ikusten duen jendea dago: “Jende askok uste du honezkero ez dagoela boluntariorik, borondatez lan egiteko asmo ez gogorik. Baina hori ez da egia. Zerbitzu bat eskaintzeko borondatea duen jende asko dago. Hori bai, bestelako jarduerekin batera”, diosku zerbitzuko arduradun eta antolatzaileak, Sara Vitoriak. Izan ere, “geuk ere jan behar dugu, noski”, gaineratu du.

## Pertsona, sistema bateko zati bezala

Psikoterapia sistemikoaren ikuspegia lantzen dute Sara eta Monikak: “Pertsona sistema baten barruan aztertzen dugu, hau da, arazoa duen pertsona laguntzen saia gaitzke, baina bere testuingurua, hots, bere familia eta, orokorrean, inguruan daukan jendea, ez bada horretaz jabetzen eta ez bada harremanak aldatzen, nekez izango da horretarako konponbiderik”, azaltzen du Sara Vitoriak.

“Komunikazioa da gakoa”, azaltzen du arrasatearrak; “hori ez bada egokia, komunikazio txarreko kate antzekoa sortzen da pertsonen artean. Komunikazio hori aldatzean dago gakoa”.

## Diru ekarpen muga, 100.000 pezeta inguru

Arrasateko Caritas taldeko arduradunak, Pilar Arzamendik, bideratzen ditu erabiltzaileak Sara eta Monikarengana. Pertsona edo familia horrek zein baliabide ekonomiko dituen Caritasek neurtzen du. “Adibidez, hiru seme-alaba edo gehiago eta soldata bakarrik dituzten familiak; edo pentsio baxua duten alargunak... dira gehienak. 100.000 pezeta inguruko diru ekarpena da muga”, dio Pilarrek.

Pilarren esanetan, arazo motak aldatuz joan dira: “Lehen, alkoholak eragindako arazo gehiago zegoen. Orain gehiago etortzen dira, adibidez, drogatan sartuta dauden seme-alabak dituzten emakumeak”.

## Bailaran, labur

MANKOMUNITATEA

**Datorren urteko aurrekontuak aurkeztu, eta beste hainbat gai onartu zituen Debagoieneko Mankomunitateak**

Hileroko bilera egin zuen joan zen astean Debagoieneko Mankomunitateak Eskoriatzako udaletxean. Besteak beste, datorren urteko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu zuten. Aurrekontuak ez zituzten eztabaidatu, atzo zirriborroa banatu zuten bakarrik. Hurrengo egunetan Udaletara bidaliko dute, gero Udaletan aztertu dezaten. Aurrekontuez gain, beste gai batzuk ere landu zituzten. Esaterako, hainbat lanpostu bete ahal izateko baldintzak finkatu zituzten. Ingurumen zerbitzuaz arduratuko den pertsona bat kontratatzeko asmoa dute, garapen ekonomikoko agentziaz arduratuko den langile bat ere bai, aldi baterako, eta baita informatikari bat eta euskara teknikaria ere, urtebeterako. Euskara teknikariaren lana. Mankomunitateko euskara plana aurrera eramatea izango litzateke. Bestalde, urtarrilaren batetik aurrera, Fomento de Construcciones y Contratas enpresa hasiko da zaborra batzen. Hori onartu zuten batzarraren. Beraz, gaur egun zaborra batzen duten langileen kontratuan hainbat aldaketa egingo dituzte. Urtarriletik aurrera, hortaz, edukiontzi bidez jasoko dute zaborra. Horrez gain, ezintasunen bat duten lagunendako garraio zerbitzua ere esleitu zuten. Gurebus Donostia aldeko enpresak beteko du lan hori. /SAIOA OJANGUREN

OSTELARITZA

**Hirugarren izarra eman berri diote Arrasateko Hotel Mondragon**

Arrasateko Hotel Mondragonek hirugarren izarra irabazi du oraingo astean. Bi izar zituen hotel horrek eta, aurretik, hiru izango ditu. Horrela, ibarreko hiru izarreko lehenengo hotela izango da. Debagoienean bi izarreko hotelak besterik ez zeuden, horregatik gustura jaso dute albiste Mondragon hotelean. Madrilgo Turismo Ministerioak banatzen ditu izarrak, eta horretarako hainbat baldintza bete behar dituzte hotelek. Mondragon hotelean orain dela gutxi izan ziren Gobernuko turismo saileko teknikariak, eta oraingo astean jaso dute saria. Gaur egun, Mondragon hotelak 43 gela eta 2 suite ditu. /GORKA ETXABE

PROTESTAK

**Lan baldintza eskasak salatu dituzte sindikatuek, joan zen astean Bergarako saihebidetan izan zen lan istripuagatik**

ELA, LAB eta ESK sindikatuen deiarri erantzunez, 100 bat lagun elkartu ziren astelehenean lan prekarietateagatik protesta egiteko. Joan zen astean, 22 urteko gazte bat hil zen Bergarako saihebidetan lanean ziharduela. Antza denez, elektrizitate kable bat ukitu zuen, eta horrek eragin zion heriotza. Bereziki, eraikuntza arloan langileek dituzten lan baldintza eskasengatik egin zuten protesta sindikatuek, heriotza gertatu zen tokitik gertu, Bergarako Labegarietako zubia-oren ondoan. Eraikuntza enpresek Laneko Arriskuen Prebentzioarako legeak esaten duena ere betetzen ez dutela salatu zuten sindikatuek. /ENEKO AZKARATE



JULIO CALLEJA

BERGARA ETORKINAK

## Etorkinak argazkitan, FISC gobernuz kanpoko erakundearen eskutik

*Erakusketak etorkinenganako leiho irekia izan gura du*

MONIKA BELASTEGI

Bergarako FISC erakundeak etorkinen gaineko erakusketa egingo du hilaren 13tik 15era, kultura etxean. Etorkinak ezagutzera ematea du helburu.

Hogeita bost argazki inguruk osatuko dute Bergarako FISC gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako erakusketa. Guztiak Euskal Herrian, ia gehienak Donostian, bizi diren etorkinen argazkiak dira; eta erakusketaren helburua horixe da, hain justu: gugandik hain hurbil bizi diren etorkinenganako leiho irekia izatea; etorkinak eta euren bizitzeko modua hobeto ezagutzera heltzeko bidea izatea, azken baten.

Horrekin batera, hilaren 13an, hitzaldia egingo dute FISCEko kideek kultura etxean, 19:00etan. Hitzaldian, Nikaraguaren egoeraz jardungo dute. Horrez gain, FISCEk azken bi urteotan Bergarako Udaletik jasotako dirulaguntza zertan inbertitu duen ere azalduko du. Antolatzaileen esanetan, Mitch urakanak ondorio ikaragarriak izan zituen Nikaraguan ere. Hainbat eraikin sun-



Bidezko merkataritzako denden helburua Hirugarren Munduari laguntzea da.

tsitu zituen; tartean, eskolak. FISC erakundeak arlo horretan egin du lan, batez ere: umeendako eskolak eta emakumeendako tailerrak eraikitzen. Horixe da, gainera, FISCEn izatearen xedea: Hirugarren Munduko ume eta emakumei laguntzea, hezkuntzari dagokionez, batez ere. Hori eta beste hainbat gauza azaldu-

ko dituzte kultura etxean egingo duten berbaldian.

### BIDEZKO MERKATARITZA

FISCEko kideek, Debagoieneko gainerako GKEekin batera, Harreman bidezko merkataritzako denda jarriko dute San Martin plazan datorren zapatuan, 10:00etatik 14:00etara.

OÑATI

GIDA KOMERTZIALA

## Laixanek, gaur, eguaztena, aurkeztuko du 2002ko gida

*Behin aurkezpena eginda, herriko denda eta etxe guztietara banatuko dute gida, doan*

AINTZANE IRIZAR

Gaur, eguaztena, 19:00etan aurkeztuko dute gida Kultura Etxean. Herriko denda eta partikularren telefonoak jaso dituzte gida horretan.

Bi urtetik behin argitaratzen du Laixanek Oñatiko gida komertziala. Hantxe, herriko denda guztien telefono zenbakiak eta helbideak jaso dituzte. Era horretan, herriko telefonoak topatzerakoan, aukera eroso aurkezten digu Laixanek.

Aurten, Amaia Bikuña aritu da komertzial lanetan, denda eta industriekin harremanetan, gida osatzen. Bestalde, gida diseinatzeaz Biklon arduratu da.

Gaur, eguaztena, iluntzeko 19:00etan egingo dute, esan bezala, gidaren aurkezpena Laixaneko zuzendaritzako kideek eta gidaren egileak berak.

Dagoeneko hasi dira gidak herriko

etxe, denda eta komertzio guztietan banatzen, eta pare bat asteren buruan banatuko dituzte guztiak. Guztira 4.500 ale argitaratu dituzte. Norbaitek gidarik jaso ez balu, Laixanen egongo dira eskura, gura duenarentzat.

### LIBURU ETA DISKO AZOKARIK EZ

Azken urteotan, euskal liburu eta diskoen azoka antolatu izan du Laixanek, euskal kultura bultzatzeko helburuarekin. Gaztelekuan antolatu izan dute hori. Gune horretan, baina, bestelako ekitaldiek ere izan dute lekuri: kontzertuek, diapositiba emanaldiek eta abar. Aurten azokarik ez antolatzearen arrazoia Gaztelekua itxita egotea da, eraberritzen ari baitira. Dena dela, Laixanek azokari buruz egin duen balorazioaren arabera, azokak ez du erantzun positiborik izan azkeneko ekitaldietan. Bai, ordea, azokarekin batera antolatu izan dituzten gainerako ekitaldiek.

### Zertzelada

**Dagoeneko hasi dira Oñatiko etxe eta denda guztietan gidak banatzen. Etxean gidarik jasotzen ez duenak Laixanen egoitzan izango ditu gidak eskuragarri.**

ELGETA

ESKOLA UMEENDAKO JANTOKIA

## Eskolako umeendako jantokia jarriko duela ziurtatu du Ordezkaritzak

*Iazko ikasturtean 18 haurrek eman zuten izena jantokirako*

OXEL EROSTARBE

Iazko ikasturtean eskolako umeendako jantokia jartzeko eskara egin zuten zenbait gurasok. Ikasturte honetako datu zehatzik ez dagoen arren, iaz 18 ume izan zuten egunero jantokira joateko beharra.

Izan ere, gurasoek gero eta zailtasun handiagoak dituzte lan orduetan seme-alabak norbaitekin uzteko. Gurasoek Eskola Kontseiluan egindako eskaera Irakaskuntza Ordezkaritzakoei azaltzeko, bilera izan zuten aurreko astean Maite Aranzabal eskolako zuzendariak eta Ordezkaritzako arduradunek.

Bilera hauetan, eskolako umeek datorren ikasturtean jantokia izango dutela ziurtatu zuten Ordezkaritzako arduradunek.

Datorren astean bertan, eskolara etorriko dira Ordezkaritzako teknikariak, jantokia kokatzeko leku aproposena zein izan daitekeen aztertuz.

Arazo hau izan duten beste herri batzuetan, jantokia eskolan bertan egin beharrean, herriko jatetxe batera eraman izan dituzte umeak. Ez dirudi gure herrian hori egiteko asmorik dagoenik, Maite Aranzabalen esanetan, asmoa, hasiera batean behintzat, eskolako gelaren batean jantokia egitea da eta. Hala ere, orain-

goz ez dago zehaztuta jantokia non kokatuko den, eta zeinek hartuko duen umeak bazkaldu eta gero zaintzeko ardura. Otsailerako, jantokiaren kokalekua zehaztuta egotea espero dute eskolako arduradunek.

### BI URTE ARTEKOENTZAKO GELA

Bi urte bete gabe dituzten umeen gurasoek horiek zaintzeko gela zabaltzea ere eskatu zuten.

Eskola eta Ordezkaritzako arduradunek egin zuten bileran, gai hori otsailera arte atzeratzea erabaki zuten. Izan ere, urtarril edo otsailerako lege berria jarriko dute martxan Jaurlearitzak eta Diputazioak.

ANTZUOLA

## Diputazioak laster emango dio Udalari errepideari buruzko erantzuna

AINTZANE IRIZAR

Antzuolako Udalak ez du oraindik erantzun ofizialik jaso, baina irailean Diputazioko teknikariak Antzuolan egon zirenean, errepidearen egoera bertatik bertara ikusi, eta zerbait egin beharra zegoela onartu zuten.

Errepideak sortzen duen arriskuaz kezkatuta, Antzuolako Udala aspalditik dago Diputazioko arduradunekin harremanetan. Errepidea trabesiatzat hartzea da Udalak eskatzen duena. Izan ere, horrek abiadura muga murriztea ekarriko luke.

Diputazioko errepide mantenturako arduradun Iñigo Zufiriaren esanetan, "gure ustez, zati bat bakarrik hartu daiteke trabesiatzat, gainerakoa saihebidetu da". Goizper pareko bidegurutzearen ingurukoa da zati hori. Udalak, bestalde, Errekalde pareko zebra bidearen egoera arriskutsua dela, eta horri ere irtenbidea ematea eskatu zion Diputaziolari, baina oraindik ez dute horren inguruko proposamen zehatzik prestatu.

ESKORITATZA

## Hainbat gai onartu zituzten eguenean egindako ohiko osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE

Joan zen eguenean egin zuen Eskoriatzako Udalak ohiko osoko bilkura. Hogeitabat gai azaldu ziren mahai gainean, eta guztiak erabaki behar izan zituzten, tartean, baita bi mozio ere.

Hiru urte pasatu dira Eskoriatzako udaletxean euskararen erabilera normalizatzeko plana garatzen hasi zirela. Euskaltegioko kide bat ari da lan horretan, eta eguenean bilkuran, plana aurkeztu zien bertaratutako politikari. Eskoriatzako Udal liburutegia, bestalde, lekuz aldatu gura dute, eta lanen exekuzio kontratua aldatzeko proposamena onartu zuten.

Horiez gain, bi mozio ere aurkeztu zituzten. Lehenengoan, Euskal Herriko Nortasun Agiria udaletxean bertan atera ahal izateko eskaera egin zuten. Bigarrena, berriz, sexu bereko izateko bikoteen ingurukoa izan zen. Izateko bikoteen erregistroan, sexu bereko bikoteek ere izena emateko aukera izatea onartu zuten, hain zuzen.

Tapizeriak  
Moketak  
Alfonbrak

Kruz Gallastegi, 3 • 943 76 07 37  
BERGARA

GASTON Y DANIELA

Gazteendako, umeendako  
eta ume jaioberriendako  
altzariak eta dekorazioa

ARETXABALETA

NEGU KULTURALA

ARRASATE

BIDEZKO MERKATARITZA

## Udaleko Kultura sailak gertu du dagoeneko Negu Kulturaleko egitaraua

AMAGOIA LASAGABASTER

Gabonetako oporrak gerturatze-arekin bat, Udaleko Kultura sailak beti gertatu ohi du ekitaldiz beteriko egitaraua. Horrela, aurten ere, izango da zer egin eta zer ikusi abenduaren 6tik urtarrilaren 19ra bitartean.

Aurten, Kultura sailak bi milioi pezeta inguruko aurrekontua du Gabonetarako. Horietatik zati handi bat Negu Kulturalean gastatuko du. Egitaraua, batik bat, gazte eta umeei zuzendurikoa da, izan ere, horiek bizi dituzte oraindik ere ilusio handienaz Gabonak.

### MUSIKA, PROTAGONISTA

Negu Kulturalean, musikak presentzia handia izango du. Horrela, abenduan hiru kontzertu eskainiko dituzte. Lehengoa Aidar Gainullin akordeoilari errusiarrak emango du. Bigarrena, Aretxabaleko akordeoi orkestrak abenduaren 15ean eskainiko duena izango da. Eta

### Zertzelada

**Negu Kulturalean musikak presentzia handia izango du. Horrela, abenduan hiru kontzertu eskainiko dituzte; lehena, Aidar Gainullin akordeoilari errusiarrarena.**

azkenik, hirugarrenean, Leizarra musika eskolako ikasleek hainbat musika tresnekin ikasturtean ikasitako guztia erakutsiko dute jendaurrean. Hala ere, bestelako ekitaldiak ere izango dira, hala nola, hitzaldiak eta margo erakusketak.

### UMEENDAKO EGITARAUA

Gabonetan, duda barik, umeek izaten dute protagonismo handiena; horregatik, Negu Kulturalean horiei zuzendutakoa izango da.

Olentzero, Bizar Zuri eta Errege Magoen etorrera herriko eskolekin elkarlanean antolatu dute aurten ere. Eta noski, umeak oportunitate izanik, egun guztia jolasen pasa dezaten, Poxpolin parkea jarriko dute Kiroldegian. Han, puzgarriak, tailerrak, ur jolasak... denetarik egiteko aukera izango dute herriko gaztetxoek.

Azkenik, Negu Kulturalean ondo baino hobeto amaitzeko, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia eskainiko dute urtarrilean.

## Bidezko merkataritzan oinarritutako azoka irekiko dute gaur, eguaztena

Seber Altuben, frantziskotarretan, izango da abenduaren bukaera arte

UBANE MADERA

**Bidezko merkataritzan oinarritutako azoka zabalduko dute gaur Seber Altubeko frantziskotarretan. Harreman GKEk antolatuta, hil amaiera arte izango da.**

Ohitura bihurtu da dagoeneko Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak urtero Gabonetan antolatzen duen azoka. Bidezko merkataritzan oinarrituta, Hirugarren Munduko Kooperatibetan egindako artisautza eta eskulanak gozatu eta erosteko aukera izango da, margolanak, poltsak, gerrikoak... Eta, gainera, "arrasatearrei beste herrialdeetako pertsonekin solidarizatu eta gizaki guztiek aukera berberak izango lituzketeneko mundu bidezkoago baten alde lankidetzan aritzeko aukera zabaldu" gura die Harremanek.

Gaur inauguratuko dute azoka, 20:00etan. Goikobalu abesbatzak kontzertua emango du San Frantzisko elizan. Eta gaurtik abenduaren bukaera arte zabalik izango da azoka, 18:00etatik 20:00etara, lanegunetan, eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00eta-



ARTXIBOA

Hirugarren Munduko Kooperatibetan egindako produktuak izango dira salgai.

tik 20:00etara, jaiegunetan.

Azokan ateratako dirua San Clemente izeneko proiekturako izango da, Kolonbiako Andeetan kokatutako Guatica herrian lantzen ari direna. Helburua da elikaduraren industriarekin, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako teknika eta ezagutza berriak zabalduko dituen eskola-

lantegiak eraiki eta beharrezko ekipamenduaz hornitzea.

### HITZALDIK

Bestalde, Harreman GKEk hitzaldia antolatu du datorren eguaztenterako. Hego eta Ertamerikako egoera hizpide, han izandako borondatezko lankide batzuen eskutik. 19:00etan, Monterronen.

ARAMAIO

LEINTZ GATZAGA

AUZOLANA HERRIAN

## Aramaiok ere izango du bere lekutxo Durangoko azokan

UBANE MADERA

Aurreneko aldiz, Durangoko Disko eta Liburu Azokan Aramaiok ere bere lekua izango du. Hain justu, Badihardugu elkarteak izango duen saltokian izango dira Aramaiotik eramandako liburuak, Deba ibarreko gainerako udal argitalpenekin batera.

### SEI LIBURU

Aramaiotik sei liburu eramango dituzte: *Aramaioko joko eta jolasak*, Sagitario lehiaketan hiru urteotan irabazle izan diren euskarazko idatziak (hiru liburu), Aramaioko lore jokoen liburu, eta tolerantziaren gainean beste udal batzuekin batera lankidetzan argitaratu duten beste liburu bat.

Iaz ere egin zuen Aramaiok Durangoko azokara joateko saiakera, baina ez zuen lortu; hortaz, aurten estreinaldia izango dute. Gogoratu Durangoko Disko eta Liburu Azoka gaur zabalduko dela eta domekara arte izango dela zabalik, goizetik gauera arte, baita eguerdietan ere.

## Auzolanerako deialdiak erantzun zabal izan zuen

*Etxe guztietatik daukate auzolanera joateko betebeharra, erretiratuta ez badaude behintzat*

MIRARI ALTUBE

Udalak zapatuan auzolanerako egin zuen deialdiak erantzun zabal izan zuen. Izan ere, erretiratutakoak izan ezik, herriko etxe guztietatik joan behar da lagunen bat auzolanera.

Kanposantu inguruak eta herriko beste hainbat bazter garbi-

tu eta txukundu zituzten zapatu goizean.

### SARRI EGITEN DEN DEIALDIA

Ez da deialdia egin den lehenengo aldiz; aurretik ere hainbat aldiz bildu dira gatzagarriak, karobiak berreskuratzeko eta Gatz Museoaren inguruak txukuntzeko, besteak beste.



AINZANE GARDOKI

Kanposantu inguruak garbi eta txukundu zituzten zapatuan.

**OPEL**

# Zatoz

urte bukaerako

## deskontuak

aprobetxatzera!\*

\*500.000 pezetarainoko deskontua, modeloaren arabera. Gaur bertatik hasita, bi urteko bermea km mugarik gabe.

ZERBITZU OFIZIALA KONTZESIONARIO OFIZIALA

**TAKOLO AUTOAK** **TALLERES OLA**

Araba etorbidea • 943 77 30 10 • ARRASATE Olabarrena auzoa • 943 76 33 44 • BERGARA

Erdiko kale, 32  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 16 12

Gizonak Emakumeak

**JANTZIAK**

Ibai-arteren bazkide

Ibai-arte

## Zabalik

IDOIA  
ETXEBARRIA

## Lapikoetako kea

**A**fganistan. Egunero ez dugu besterik entzuten. Mazar-i-Sharif, Kandahar, bonbardaketak, negoziazioak. Talibanak taillarinak baino ezagunagoak egin dira. Lehen, berriz, Afganistan non zegoen ere! Baina orduan ere txakurrak oinutsik zebiltzan han. Azken 22 urteetan ez dute gerra besterik ezagutu. Hala ere, beste gerra eta interes batzuk zeuden gure begiradapean: Golkokoa, Kosovokoa... Beti egon ohi delako usain oneko lapikoren bat alboko sukaldereen batean, gure koilararen igurtziaren beharrez. NYeko Bikiena gertatu zenean, eta estatubatuarren sukaldeak su hartu, Afganistani iritsi zitzaion telebistako pantaila betetzeko garaia. Mendekurako leku aproposena zen.

Errusia zen etsaia lehen; Bin Laden (edo Wally) eta talibanak, aliatuak. Orain, Putin eta Bush mundua terrorismotik libratzeko planak egiten ari dira. Iparraldeko Aliantzakoak dira onak (talibanak hiltzen hain trebeak direnak), eta Bonneko elkarrizketetan aurrerakoi eta zibilizatuak direla erakusten saiatuko dira; emakumeen alde daudela, orain dela gutxi Kabul manifestazio feminista bat debekatu badute ere. Paxtunek, berriz, Afganistango etnia zabalenak, ez dute ganorazko ordezkartzarik negoziatzeotan. Alabaina, osatuko dute zelanbait Gobernuak, eta guri dena kontrolpean dagoela esango digute. Mundua salbu dela. Ez ditugu ezagutuko hildakoak lurperatzeko egindako zuloak; errefuxiatuen bihotzetako arrakalak; bonben ostean botatako janariak eta mezu subliminalek itxi ahal izan ez dituzten zauriak.

Geroago, agian Saddam Hussein izango da, berrit, munduaren etsaia. Nork daki. Eta mendebaldeko herrialde denek (eta ekialdeko gehienek) irribarre egingo diote Bushi, haginak zorrotzuta. Eta guretzat oso ezaguna den biboteduna bezalakoak lehenengo ilaran egongo dira, terrorismoaren aitzakian euskal kutsua duen guztia zapuzteko gertu. Gure lapikora begira.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIA bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 72  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: iritzia@goiena.com



## Badakizu Debagoienak urtero 12.411 milioi pezeta ordaintzen diola Madrili?

**K**ontzertu Ekonomikoaren berriztatzearen inguruan eztabaida pizten ari da euskal gizartean. Horregatik beharrezkoa da ondo argitzea zein den gaur egun Kontzertu eta Komenio Ekonomikoek islatzen duten errealitatea. Azterketa serioa egiten badugu, berehala konturatuko gara Euskal Herriaren ukapen politiko eta ekonomikoaren beste adierazle bat direla.

Kontzertu eta Komenio Ekonomikoek Estatu Espainolarekiko dependentzia ekonomikoa agerian uzten dute. Jatorria inposizioaren ondorioa da. Karlismadak galdu ondoren, Foruak kendu eta gero, soberania fiskala ere galdu egin genuen. Eta, harrezkero, Kontzertu eta Komenio Ekonomikoa Estatu Espainoleko egitura fiskalaren menpe daude. Espainiako Zerga Lege Orokorraren agindupean. Bestalde, Franco hil ondoren, Kontzertua eta Komenioa Espainiar Konstituzioaren legedieren azpian jarri zituzten.

Gainera, historian zehar, eguneroko praktikan, lau Foru Administrazioak Esta-

tuko arauak berridazten aritu dira. Eta Estatu arautegitik zertxobait aldendu direnean, berehala etorri dira inguruko autonomiak, Estatu edo Europako Batasuna, errekurtsioa jartzera, azken hilabete hauetan berriz ere gertatu den bezala. Dena dela, Kontzertuak eta Komenioak daukaten ahalmen txikia ere, EAJk eta UPNk erabili dute neurri atzerakoiak garatzeko, kapitalen eta enpresen mesedetan.

Aurrera begira, Kontzertuaren kasuan, gauzak oraindik gehiago okertuko dira. Joan den urtean, Gasteizko Administrazioak eta Foru Diputazioek, berriz ere, sumisoki Estatuarekin batera Batzorde mistoa eratzea onartu zuten. Hau da, edozein arau fiskal berri aurrera eramateko, Estatuaren oniritzia izan beharko dute.

Hau gutxi bazen, gure kalkuluen arabera, urtero Hego Euskal Herriatik 500.000 milioi pezeta baino gehiago joaten zaizkigu Espainia aldera. Hein handi batean, gure herriaren kontra erabiltzen dituzten eskumenak ordaintzeko. Besteak beste, armada, errege etxea eta polizia.

Badakizu kopuru hauetatik Debagoieneko eskualdeko herriei zenbat tokatzen zaien ordaintzea? Gezurra badirudi ere, 12.411.007.122 pezeta. Eta horietatik, Debagoieneko herrietatik, datorren urterako 84.889.285 pezeta joango dira errege etxerako eta Organo Konstituzionalerako; 271.294.701 pezeta nazioarteko politikarako; 1.483.834.986 pezeta Barne Ministeriorako eta 2.046.451.105 pezeta Defentsa Ministeriorako.

Datu hauek mahai gainean jarri ondoren, non dago EAJk, EAK, EBk eta UPNk demagogikoki hainbeste aldarrikatzen duten Kontzertu eta Komenio Ekonomikoen autogobernuaren birtualitatea? Serioak izan gaitezten, Euskal Herriaren mendekotasunaren eta partizioaren adierazle argiak besterik ez dira.

Gainera, EAJ Estatuarekin egiten ari den Kontzertuaren negoziazioa iruzur berri bat da Euskal Herriarentzat. Makillajerako aldaketa txiki batzuk gorabehera, gaur egungo mendekotasun politiko eta ekonomikoan mugitzen ari da. Ez hori bakarrik, sumisio egoera hau denboran mugagabea bihurtu nahi du.

Horregatik, euskal gizarteak eta Debagoieneko eskualdeko herriek jakin behar dute Kontzertua eta Komenioa Euskal Herriaren mendekotasunaren eta partizioaren adierazle argiak besterik ez direla.

Garaia da Kontzertua eta Komenioa gaituz subiranotasun fiskalaren aldeko bidea egiten hasteko. Euskal Herri osorako. Kontuan eduki behar dugu baita ere, Lapurdik, Zuberoak eta Behe Nafarroak ez dutela inolako ahalmen fiskalik. Behar dugun erritmoa markatuz eta estrategia komun baten inguruan indarrak bilduz. Guk, gainera, zerga sistema aurrerakoa eta berbanatzailea antolatuzko lan egingo eta borrokatuko dugu.

AITOR ARANTZABAL (DEBAGOIENENKO  
BATASUNENKO KOORDINATZAILEA)  
Debagoiena

## Espainiar Konstituzioaren aurka

**B**erriz ere heldu da espainiar Konstituzioaren eguna, eta berriz ere, egun horretan, Espainiako Gobernuak jai egitea inposatuko digu. Euskaldunontzat, Konstituzio arrotz hau gutziz antidemokratikoa dela azpimarratu nahi dugu. Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako biztanleriaren gehiengoak ez zuen bozketa bitartez onartu, eta kontuan hartu behar da Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroako biztanleek ez zutela bozkatzeko aukerarik izan.


Konstituzio hau zatiketaren eta antidemokraziaren inposizioa da. Konstituzio espainiar demokratikaren oinarria den autodeterminazio eskubidea ukatzen digu; azken mendeetan ezagutu ez dugun askatasuna eta bakea ekarriko lukeen eskubidea, hain justu.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 6a ez da jai egiteko eguna, borrokatzeko eguna baizik. Soilik borrokaren bitartez lortuko ditugulako herri gisa dagozkigun eskubide zibil eta sozialak. Inposizioari aurre egin behar diogu. Deialdi hauek egiten ditugu: abenduaren 5ean, 19:00etan, eskualdeko manifa Arrasaten. Gaueko 00:00etan burrundara Aretxabaletan. Eta abenduaren 6an, 09:30etik aurrera, Herri Eskolak San Vitorren, Segik eta Ikasle Abertzaleek antolatuta. Espainiar faxismoaren aurrean gazteok gogor eta tinko!

SEGI  
Arrasate

## Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

**B**ihar, eguena, zabalduko dute Durangoko Liburu eta Disko Azoka, hau da, euskaltzaleen bilgunea, urteroko ezinbesteko zita. Baina, hori baino askoz ere gehia-

go bada Durangoko Azoka, euskal liburu, disko eta multimedia argitaletxeen berri-berrien erakusleihen bada. Gero eta zabalagoa da eskaintza... Baina, euskarazko liburu eta diskoen azoka izan beharko luke bakarrik? Bat baino gehiago horren alde agertu da. Posible izango litzateke? Eskaintza eta parte hartzea ez lirateke asko murriztuko?

# Durangoko azokan, euskara hutsezko produktuak bakarrik?

## Euskerazko produktuak bakarrik ikustia da ametsa



MIRIAM TXINTXURRETA  
Irakaslea

**D**urangoko azokan euskerazko produktuak bakar-bakarrik ikustia izango litzake nire ametsa, ze horrek esan gurako leuke Euskal Herrian sortutako produktu guztixak euskeraz egindakua izango lirakela.

Baina hori amets hutsa da ondion. Orduan ze egin? Euskeraz dien produktuak bakarrik eruan azokara ala Euskal Herrian sortzen dan edozer? Aurreko galderiaren erantzunaren bila ekin eta beste galdera bat etorri jat

burura. Ze da euskal produktua? Makinatxo bat bider entzun izan dogu ez dala gauza bera euskalduna ala baskoa, baita euskalduna euskaraduna dala. Bai, hola izango zan Euskal Herria euskararen lurraldia zanian. Baina aspaldidanik gaz kolonizata, horrek dakarrenaz.

Eta hizkuntza kontuan, behintzat, euskeraz ez dakixen "euskaldun" mordua daukogu baztarretan. Eta horreik ze die, euskaldunak, euskal herritarrek ala ze demontre? Ni neu ez naz inor euskalduna dala dixuen tuterar bati ez danik esateko. Euskalduntasuna sentimentuaz lotu geike, orduan? Hola balitz, sentimentu horrek euskeria ikasten bultzatu biharko leuke sentimentuz "euskalduna" dan "erdalduna"; batez be, Sarrionandiak esandakua gogora ekarriaz, euskeria dalako gure territorixoa libre bakarria. Eta gainera, sentimentuak sentimentu, globalizazio sasoiotan ze alde dau euskaldun eta berlingar gazte baten artian? Mc Donalds-ak jaten ditue bixak, musika talde berak entzuten, jazkera antzekua dauke... Euskeria da orduan bereizgarri bakarria.

Ideiak apurtxo bat argitu edo ilundu ostian, ondion ez daukot eretxi garbirik. Durangoko azokan erdarazko produktuak bai ala ez? Esan neiken bakarria da ezin garela geure buruari iruzur egiten ibili. Egoeria dan modukua da, eta Durangoko azoka horren erakusgarri besterik ez: euskal produktuen artian Euskal Herrixaz lotutako erdarazko produktuak be erosten die. Aurretik beste hamaika kontu konpondu biharko ditugu, bai Durangoko azoka bai etxepeko kiosku euskarazko produktuekin beteta egon daitezen.

**"Egoeria dan modukua da, eta Durangoko azoka horren erakusgarri besterik ez"**

## Tentuz zaindu beharreko kontua da



OLATZ OSA  
Elkarlanean argitaletxekoa

**E**uskal Herrian euskara normalizatua balego, euskara balitz gu guztion komunikazio tresna naturala, orduan akaso, Durangokoa ez litzateke Euskal liburu eta diskoen azoka izango, besterik gabe Liburu eta diskoen azoka deituko genuke, eta munduko beste hainbat azokatan bezala, liburu eta diskoa erakustea, promozionatzea eta saltzea litzateke helburua, erdaraz legokeen liburuak ez luke kazetariaren galderarik iradokiko, eta ez antolatzaileek, ez eta azokan parte hartzen dugunok, ez genuke berezko eta naturala den zerbait justifikatzen eta aldarrikatzen aritu beharko.

Baina lau biztanletik bat baino ez da euskaraz ondo edo halamoduz hitz egiteko gai. Tamalez, askoz gutxiago dira euskarazko diskoak eta batez ere liburuak kontsumitzen dituztenak. Urteko gainerako 360 egunetan, erdarazko produktuei erreparatzen diete komunikabide gehienek, erdarazko produktuak dira erakusleihenotan deigarri, eta erdal letretan zorrotzen dituzte kritikoeak euren lumak. Beraz, Durangoko azoka euskal disko eta liburuaren bozgorailu eta arreta gune nagusia den neurrian, euskarazkoek izan behar dute protagonista. Tentuz zaindu beharrekoa litzateke, eta uste dut azokako antolatzaileak ere jabetzen direla honetaz, euskarazko produktuen proportzioa nagusitasun handiz euskarazkoa izatea. Baina ez derrigorrez eskusiboki.

Euskararen egoera oraindik dagoen moduan dagoelako, erdaraz ere euskararen eta euskal kulturaren aldeko lana egin baitaiteke, eta erdarazko produktuei baliatu, biztanlegoaren hiru laurden hori euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko (inondik ere ez euskarazkoa ordezkatzeko). Besterik da azokan erdaraz dauden produktu guztiak onargarri diren ala ez, eta hori bada antolatzaileek zorrotz zaindu eta argitaletxeok zuzen errespetatu beharko genukeen kontua. Gai labankorra da, baina funtsean, euskal produktuei itzalik egin gabe, erdara norbait euskarara hurbiltzeko amu izatea lortuko bagenu, ba, *hoixe gehixau!*

**"Erdara norbait euskarara hurbiltzeko amu izatea lortuko bagenu, ba, hoixe gehixau!"**

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Telebista publiko eta pribatuak ezberdinak izan beharko lirateke?*

## Gora eta Behera

### BILINTX ETA ZABALTZEN




Bilintx-ek eta Zabaltzen-ek, bere 25. urteurrenean, hasieratik euskara eta euskal kulturaren bidea hautatu zutelako, eta horri esker gaur egun Euskal Herriko gelak eta liburutegiak ondo hornituta ditugulako. Herrigintzan eredu izan dira.

### ESKORIATZAKO UDALA



Eskoriatzako Udala, kale garbiketa zerbitzua aldatzeko asmotan baldin badabil ere, bitartean, gaia zelan bideratu ez duelako pentsatu. Horrela, gure bazterrak zaborrez beteta jarraitzen dute.



JOSERRA ZUBIZARRETA  
Arizmendi ikastolako irakaslea

## Koplak

### Azokak

Gabonak aurretixotik badator azoka, kartera ta diskoak laster mutur joka.

Lehenengo Durangon ta gero gurien be, niri saltzeko ia zein dan nahiko trebe.

Disko barriak eta ehundaka liburu, lehendik ere badauzkat larehun bat inguru.

Halata be erosi biheko gehienak, lanak aurreratzeke Olentzerorenak.

Nahiz ta urtero hartu hainbat desengaño, han gastatzia hobe zigarrota baino.

Eta kalendaixuek nahiz urtea nahastu, Seaskakoa behintzat inork be ez ahastu.

AITOR SARASUA

**Goienkaria**  
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendietza,  
Miguel Angel Elkorobereibar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Goio Arana (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,  
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate, Gari Bragado  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Julen Aranguren

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Inazio Arregi

**A**itziber Arregi (Arrasate, 29 urte) Mondragon Unibertsitateko irakaslea da. Zuzenbidea erakusten du Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Halaber, Idazkari akademikoa ere bada. Lehenago, Emun kooperatiba elkartean jardun zuen lanean. Lege kontuetan aditua izaki, LOU edo Unibertsitate lege berriaren gainean jardun dugu berarekin.

ENEKO AZKARATE

**Zer ondorio ekarriko dizkio Unibertsitate lege berriak HUHEZI fakultateari, eta, oro har, Mondragon Unibertsitateari?**


Lege-proiektu honek hainbat ondorio ekarriko ditu, bai egitura eta bai irakasleentzat; baina, besteak beste, honako hauek azpimarra daitezke: batetik, unibertsitatearen egitura definitzeko orduan, legeak unibertsitate publiko eta pribatuen arteko berdintasuna ezartzen du; hau da, unibertsitate pribatuen egiturak unibertsitate publikoen berdina izan behar duela dio. Horrek, unibertsitateari, bere egitura definitzerako orduan autonomia galaraziko dio, legeak ezarritakoa jarraitu beharko da eta. Eta, bestetik, unibertsitate pribatuetako irakasleen %25ek doktorea izan behar duela ezartzen du legeak. Baina ez hori bakarrik, %25 horrek Agentzia Nazionalaren ebaluazio positiboa lortu behar duela baitio. Horrek eragin nabarmena izango du unibertsitatean, irakasle horiek ebaluazio positibo hori lortzeko lan egin beharko dutelako eta, beraz, kanpoko erakunde baten irizpideen menpe geldituko direlako.

**Aldeko iritziak baino, kontrakoak askoz ere gehiago jaso ditu LOU delakoak. Edozein modutan ere, denek azpimarratzen dute lege berri bat beharrezkoa dela, aurrekoa 1983koa delako.**

Horretan denok gatoz bat. Unibertsitate lege berria beharrezkoa da. Gizartea asko aldatu da, eta dagoeneko ia 20 urte igaro dira aurreko legea onartu zutenetik. Esaterako, unibertsitatearen eta enpresen arteko harremanen gainean asko berba egin da, eta gaur egun indarrean dagoen legeak ez du ezer aipatzen horren gainean. Baina, lege berriak ez digu lagatzen unibertsitateari, enpresekin egin ditzakegun hitzarmenen bidez, harreman horiek zelakoak izan behar duten arautzen. Kontu honen gainean ez du artikulurik lege berriak.

**Eta, kontu hau oso garrantzitsua da unibertsitate guztiendako, baina bereziki MUREndako, ezta?**

Hala da. Edozein modutan, guk, behintzat, hor daukagu Alecop, geuk sortutako enpresa. Baina, lege berriak unibertsitate eta enpresen arteko harremanen gaineko arauak ondo zehaztu beharko lituzke, eta ez du hori egiten. Bestalde, Europaren gainean ere ez da gauza asko aipatzen. Legeak jasotzen du zer gertatzen den Europatik hona datozen irakasleekin, edo tituluak homologatzeko kontuekin, baina ez du ezer esaten, esaterako, MUK eta Europako unibertsitate batek elkarlanerako hitzarmena sinatuko balute, zelan arautu beharko luketen harreman hori. Hainbeste egiten da berba Europari buruz eta, gero, kontu honen inguruan ez da ezer aipatzen.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## Aitziber Arregi

MUKO ZUZENBIDE IRAKASLEA

**“Gaur egungo gizartearen beharrei ez die erantzuten unibertsitate lege berriak”**

PP-REN LEGEA

**“Proiektua Madrilgo Gobernuaren ekimen bat izan da, eta unibertsitate mundutik zetozen eskari eta beharrak ez dira kontuan izan”**

LOU ETA EUSKARA

**“Lege berri honetan, besteak beste, ez dira aipatzen bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoen errealitate eta beharrak”**

**Lege berriak unibertsitate pribatuen alde egiten duela diote ikasle taldeek. Hala uste duzu zuk?**

Legeak, batez ere, unibertsitate publikoari eragiten dio, baina badaude unibertsitate pribatuei zuzenki eragiten dieten hiruzpalau artikuluko. Estatu mailako habilitazio azterketarik ez zaie eskatzen gure irakasleei, baina lege hau ikuspegi zentralista batetik egina dago eta, azkenean, gure irakasleak ere ebaluazio positiboari begira lanean jarri behar ditugu.

**Hezkuntza sailburuak esan du Euskal Autonomia Erkidegoak bere lege propioa edukiko duela. Zer aukera geratzen zaigu?**

Ez dut uste zirrikitu handirik uzten zaiunik. Legea gauzatzekoan, edo, indarrean dagoela, praktikan ipintzerakoan, etor daiteke aldaketaren bat, baina ez zaigu aukera handirik uzten.

**Hain babes txikia izan duen legea aurrera ateratzeari buruz zer iritzi daukazu?**

Juridikoki, krimena dela uste dut. Legea indarrean jarriko dute eta unibertsitateak saiatuko dira ez aplikatzen edo, behintzat, legetik ihes egiten. Legea alde batetik joango da, eta errealitatea bestetik. Gaur egungo gizartearen beharrei ez die erantzuten legeak. Hala ere, legea, kosta ala kosta, aurrera aterako dute.

**HUHEZIKO irakasleak, orobat, legearen kontra ala alde azaldu dira?**

Esan daiteke Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta langileak lege honen kontra azaldu direla oro har, bai edukiari dagokionez eta baita legea ateratzeko moduagatik ere. Lege berriaren zain geunden, baina proiektu hau ikusita hainbat kritika entzun dira unibertsitateko hainbat eremutatik.

Alde batetik, aipatu behar da zelan sartu behar den lege hau indarrean. Proiektua Madrilgo Gobernuaren ekimen bat izan da, eta unibertsitate mundutik zetozen eskari eta beharrak ez dira kontuan izan. Baina ez da unibertsitate mundua izan aurka agertu den bakarra; izan ere, alderdi politikoei eta, batez ere, autonomia erkidegoek, kritika ugari jaurti baitituzte. Lehenengoak, gaur egun Espainiako Kongresuan dagoen egoera salatu dute, Alderdi Popularrak, duen gehiengo absolutuaz baliatuz, berak bakarrik eta beste alderdiekin kontatu barik legea aurrera atera dezakeelako. Eta autonomia erkidegoek, euren autonomiaren garapenean, atzera pauso moduan ikusi dute lege hau. Izan ere, argi ikusten da lege honek asmo bateratzailea duela, eta estatuaren kontrolpean geldituko direla lehen autonomia erkidegoen esku zeuden eskuduntzak.

Bestalde, legearen edukia oro har aztertuz, nabarmena da lege honek ez die erantzuten gaurko unibertsitateak dituen eskari eta beharrei: lehen ere esan dut, baina ez da aipatzen unibertsitate eta enpresaren arteko lotura, hain garrantzitsua eta beharrezkoa dena; ez da aipatzen Europako beste unibertsitateekin sor daitekeen lan esparrua; ez dira aipatzen bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetako errealitate eta beharrak.

**Zelan apaldu daitezke legearen eragin ezkorrak, ondorioak kaltegarriak izatekotan?**

Bi alderdi izan behar dira kontuan: alde batetik, legea ez dela oraindik indarrean sartu. Momentu honetan, tramite parlamentarioei jarraituz, senatuan dago, eta akaso aldaketaren bat egon daiteke. Hala ere, entzuten den informazioa ez da oso itxaropentsua, proposatuko diren aldaketak teknikoak izango ei baitira soilik, eta ez edukiaren gainekoak. Bestetik, legea horretarako eskuduntza daukaten autonomia erkidegoetan garatu beharko da, eta hor aldaketa nabarmenenak izatea espero da.

**Euskarari dagokionez, zeintzu aldaketa eragingo ditu LOUk?**

Lehen azpimarratu dugun moduan, legean, ez da inon ere aipatzen zer gertatuko den bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoekin. Unibertsitate publikoen kasuan, kalitatea bermatzeko asmoarekin, legeak “habilitazio nazional” bat sortuko du, unibertsitateko irakasle izan gura duen orok pasatu beharko duena. Habilitazio hori estatu mailakoa izango da, eta inon ez da bermatzen, adibidez, euskararen kasuan, hizkuntzaren kalitatea.

**Zer parte hartze daukate ikasleek MUn?**

MU berezia da. Kooperatiba elkartea da, eta horrek ematen dio berezitasuna. Kooperatiba denez, bai Kontseilu Errektorean eta baita Batzar Orokorrean, beste bazkideen adinako boto kopurua daukate ikasleek. Orduan, bermatuta dago ikasleen parte hartzea unibertsitatean.

## Kirolabur

### PILOTA/XABIER UBERA

Xabier Ubera elgetarrak eta Haritz Laskurain plazentziarrak DV pilota txapelketako finalerdia jokatu dute gaur, eguaztena, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Uberak eta Laskurainek Sorarrain eta Zapirainen aurka neurtuko dituzte indarrak. Aurretik, gazte mailako finalerdia jokatu da, gaur, Arrasaten, Mendizabal-Oteiza eta Vicente-Torres bikoteen artean. Pilota jaialdia 19:30ean hasiko da. Senior mailako beste finalerdian, Bengoetxea-Baez eta Agesta-Argote izango dira aurrez aurre, eguenean, Mugairin. DV txapelketako finalak abenduaren 22an jokatu dira, Tolosan.

### MARATOIA/IKER LARREA

Iker Larrea antzuolarra 29. postuan sailkatu zen joan zen urriaren 25ean jokatuak Donostiako maratoian. Korrikalari antzuolarrak marka bikaina egin zuen; Larreak bi ordu, 35 minutu eta 29 segundo behar izan zituen 42,195 kilometroak egiteko. 1.054 korrikalarik lortu zuten proba amaitzea. Roberto Zurro bergararrak ere denbora aipagarria egin zuen: 2 ordu, 38 minutu eta 18 segundo. Zurro 40. postuan helmugaratu zen. Bestalde, Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra 56. postuan sailkatu zen 2:42:25 denborarekin.

### FUTBOLA/ARENAZA

Zazpi hilabete lesionatuta egon ondoren, Igor Arenaza Eibar taldeko jokalaririk aretxabaletarra futbol zelaietara itzuli da. Joan zen astean, hasierako hamaikakoan izan zen Sportingen aurka, El Molinonen. 70 minutu jokatu zuen, baina Eibarrek galdu egin zuen (1-0). Domekan, berriz, Badajozen kontrako partiduan, Ipuruan, Sukiaren orde zelaieratu zen 64. minutuan. Eibar galtzen ari zen ordurako (0-1), eta Arenazak eta bere taldekideek ez zuten partidua berdintzerik izan.

### PILOTA/MURU

Iker Muruamendiaraz pilotari antzuolarrak 22-12 galdu zuen Fernando Medina mexikarraren aurka, bigarren mailako laugarterdiko txapelketaren barruan, astelehenean, Tolosako Beotibarren. Ikerrek bi partidua irabazi beharko dizkio Medinari finala jokatu ahal izateko. Bigarren mailako finala abenduaren 23an jokatu da.

### FUTBOLA/MONDRA

Lehen erregionaleko Arrasate futbol taldeak Ilintxa izango du bisitari zapatuan Atxabalpen, 15:30ean. Raul Leibaren taldeak 1-3 irabazi zion azken jardunaldian Soraluzeri, Esozian. Hala ere, arrasatearrak sailkapeneko beheko aldean dira, 12. tokian hain zuten ere. Ilintxa taldea zazpigarren postuan dago.

# Aretxabaleta-Aloña, domekan Atxabalpen

Aretxabaleta eta Aloña Mendi preferente mailako futbol taldeek elkarren aurka jokatu dute domekan, Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian, 15:30ean. Aretxabaletak Gure Txokoa taldearen aurka Ibarran

jokatutako partiduen amaieran izandako istiluengatik, partidua batez zelaia ixteko zigorra eta 25.000 pezetako isuna jaso zuen UDAk. Aipatutako partiduko epaileak aktan adierazi zenez, ikusle batek ukalondoko bat

eman zion marrazain bati, eta aldagelara bidean txanpon batek buruan jo zion epaileari. Gauzak horrela, Arrasaten jokatu da atxabaltarren eta oñatiarren arteko derbya.

Azken jardunaldian, Aretxabaletak 5-2 galdu zuen Agorrosinen, Bergararen aurka. Azken bost partiduetan puntu bakarra eskuratu du Enrique Nietoren taldeak. Lider izatetik, sailkapeneko zazpigarren tokira jaitsi dira. Aloña Mendik, berriz, 5-1 irabazi zion domekan Beti Onari, Azkoagainen. Oñatiarrek 14. postuan daude.



Gorka Zelaia, Aloñako entrenatzailea.

“Zentroan dagoen temperatura 20°koa da”



**Gorbeia**  
Arabako  
Merkataritza Zentro Handia

HIPER 1 • 14 ZINE • BOLATOKI 1  
5 EROSTETXE ERTAI  
15 LOKAL AISIALDIRAKO  
100 DENDA BAINO GEIAGO  
3.500 DOAKO APARKALEKU



**GORBEIA**  
PARQUE COMERCIAL

N - 6 2 2    A U T O B I A  
G A S T E I Z    -    B I L B O  
9 . K M . - Z I G O I T I A

www.forumsport.com

# Eguberri

hauetan

# FORUM

izango duzu gidari



SPORTLAND. Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

# Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko abenduaren 5a

Kultura  
eta  
aisialdia



Abenduaren  
Setik 14ra

## Durangoko liburu eta disko azoka

Debagoiendarrak  
egile  
eta bisitari

**D**atozen egunotan, urtero bezala, Durangok jai bati emango dio ostatu: Euskal Liburu eta Disko Azokaren beste ekitaldi bati; hots, euskaraz eta Euskal Herriaren gainean azkenaldian egin dituzten lanen erakuslehorik handiena. Hogeita hamaseigarren aldia beteko du aurten azoka horrek, eta beti bezala, milaka lagun, erosle eta kultura zale bilduko ditu. Beti bezala, berrikuntzak eta aurkezpenak izango dira, bai, baina bitxikeriak, agortuak uste genituen edizioak, eta beste hainbat kultura lan aurkitu ahal izango ditugu Durangoko erakusmahaietan. Tartean, debagoiendarrak ere izango dira: idazleak, kazetariak, musikariak... joango dira Durangoraino, euren azken lanak jendaurrean ipintzera. Baina Durangoko azoka ez da egileen jaia bakarrik izango: zer izango litzateke kultura emariez, hartzailerik ez balego? Eta gure ibarretik ere hainbat jende joango da azokara; tartean, izen ezagun asko.

Horietaz guztietaz gain, beti bezala, Euskal Liburu eta Disko Azokaren inguruan kultura ekimen ugari antolatu ditu Gerediaga Elkarteak. Aurtengo gaia euskararen apologistak izango da, eta gure hizkuntzari buruz eztabaida egiteko aukera eskainiko dute. Bestalde, hainbat kulturgilerien omenaldiak, eta musika emanaldiak ere antolatu ditu Gerediagak. Eta zelan ez, multimediak eta ordenagailuek duten gero eta pisu handiagoa Durangoko azokan islatuko da, gune elektronikoan ipiniko duten zibertokian, eta Interneten aurki dezakegun albiste eta salerosketa orrian. Euskal Liburu eta Disko Azokako ateak zabalik daude berriro ere!

/12 LEIRE KORTABARRIA

## EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA/ EUSKAL KULTURAREN HITZORDURIK GARRANTZITSUENETARIKO BAT, DURANGON

## Guztia prest dago Euskal Liburu eta D

AURTEN, 770 LIBURU ETA 80 BAT DISKO BERRI IZANGO DIRA SALGAI DURANGOKO AZOKAN; TARTEAN, SEI IDAZLE ETA MUSIKAGILE DEBAGOIENDARRAK

LEIRE KORTABARRIA

**D**atozen egunotan, ia lau hamarkada dituen euskal kulturaren jai handi bati emango dio ostatu Durangok: Euskal Liburu eta Disko Azokari. Estreinatutako berriak eta ia agortutako altxorak, denetarik ikusi eta erosteko aukera izango da: tartean, ibarreko egileen azken lanak.

Debagoiendarrak erruz joaten gara Durangoko azokara, egile eta bezero moduan. Aurten, ibarreko hainbat idazle eta musikariren lanak aurkitu ahal izango ditugu salmenta postuetan: Juan Martin Elexpuru bergararra, Urdin Elortza oñatiarra, Arrasate eta Aretxabaletako Putz aldizkariko neska-mutilak, eta izatez ibarreko ez den, baina ibarreko musikagintzarekin harreman estu-estua duen David Azurza ikusi ahal izango ditugu bertan, eta jakina, euren lanak begiratu eta, gustuko baditugu behintzat, baita erosi ere.

Horiez gain, euren lanak dagoeneko aurkeztu dituzten bi debagoiendar ere bertan ibiliko dira: Ruper Ordorika eta Juan Carlos Irizar musikariak.

**BILGUNE BIKAINA**

Baina Debagoienakook ere gustuko dugu Gerediaga elkarteak jartzen duen karpa erraldoian zehar ibiltzea. Asko badira euren lanak Durangoko erakusleho handiaren argitara eramaten dituzten ibarreko egileak, are gehiago dira ikustera edo erostera joaten diren ibarreko lagunak. Batzuk nobedadeen bila joango dira; besteak, aldiz, bitxikerien edo argitalpen zaharren bila; eta gehienak, lagunekin elkartera ere bai; izan ere, eurek adierazi diguten bezala, Durangoko azoka kulturazaleondako "bilgune bikaina" da. Hala bedi beste urte batez!

**J. M. ELEXPURU / IDAZLE ETA ITZULTZAILEA***"Itzultzeak ere ematen du satisfaziorik"*

**J**uan Martin Elexpuru bergararra argitaratu berri du, Txalaparta etxearekin, bere azken emaitza: *Filosofia Apaingelan*, Sadeko Markesaren eleberrin baten itzulpena. Hau ere azokan salduko da.

**Zelako liburua da *Filosofia Apaingelan*?**

XVIII. mendean, Frantziako Iraultzan, kaleratu zen, eta garairako, oso ausarta izan zen. Neska baten heziketa sexuala da gaia. Oso gordina da, baina umorea ere erabiltzen du. Gainera, filosofiaz, erlijioaz eta politikaz ere berba egiten du. "Literatura" bildumako zortzigarren zenbakia dugu hau. Sadeko markesaren itzulpen gehiago badago, *Justine*, adibidez; baina hauxe iruditzen zaitzaidan gure bildumarako egokiena.

**Zure ustez, zelan hartuko du publikoak nobela hau?**

Alde batetik, klasiko bat da, autore klasiko batek idatzitakoa; bestetik, oso irakurketa zirraragarria da. Hortaz, nik uste dut jende-

ak ondo hartuko duela.

**Kasu honetan, itzultzaile moduan egin duzu lan. Zer nolako esperientzia izan da?**

Jatorrizko nobela gustukoa bada, itzulpena egitea ere gauza atsegina izango da; niri, behintzat, horrela gertatzen zait. Itzultzailearen eginbeharra da itzulpen usaina guztiz kentzea, eta irakurleak, jatorriz euskaraz idatzitakoa balitz bezala hartzea.

**Sortzaile ala itzultzaile izatea duzu gura?**

Hutsetik sortzeak satisfazio handiagoa ematen duela onartu beharra dut. Edozelan ere, itzulpenak ere ematen dit satisfaziorik, izan ere, itzultzea, zentzu batean behintzat, zerbait sortzea ere bada.

**Durango, egile bezala ez ezik, erosle bezala ere ibiliko zara?**

Bai; denetarik ikusi eta irakur daiteke bertan. Niretako, eskaintzen duen gauzarik interesgarriena da beste inon aurki ez daitezkeen liburu eta bitxikeriak biltzen dituela.



**FILOSOFIA APAINGELAN**  
Juan Martin Elexpuru (itzul.)  
Txalaparta

**URDIN ELORTZA / KAZETARIA***"Oñatiko ibilbideen liburu bat falta zen"*

**U**rdin Elortza kazetari oñatiar gazteak *Oñati, oinez* izeneko liburua aurkeztuko du Euskal Liburu eta

**Disko Azokan; horrelaxe aurreratatu genuen joan den asteko GOIENKARIAN.**

**Zein da *Oñati, oinez* liburuaren helburua?**

Liburu horretan, Oñatin zehar egin daitezkeen sei mendi ibilbide edo PR direlakoak biltzen dituz; baita beste hogei bat proposamen ere. PR horien berezitasuna da homologatutako eta seinalizatutako ibilbideak direla. 150 orriko liburua da, eta 250 bat argazki ditu, batez ere aereoak, Oñatiko eta Bergarako argazkilarik bikainen liburua honetarako espresuki ateratakoak. Hortaz, uste dut informazio aldetik ez ezik, ikusteko ere nahiko erakargarria dela.

**Zelan bururatu zitzaizun ideia hori?**

Egia esan, ez zen nire bururatu izan, Oñatiko mendi talde eta elkarte gastronomikoetako jendearena baizik. Beste herri asko

horrelako argitalpenak badituztela, adibidez, *Goierrri oinez*, iaz argitaratutakoa; baina Oñatin horrelako liburu bat falta zela konturatu ziren. Udalarari egin zituen proposamen hori; Udalak beka bat eskaini zuen, eta neuk ateratu nuen urtebeteko beka hori. Eta hemen dago emaitza!

**Zein postutan aurkitu ahal izango dugu *Oñati, oinez*?**

Oñatiko Udalarari argitaratu du liburua, baina Zabaltzen etxea da banatzailea, eta azken horien salmenta postuan izango da. Nik neuk ere oraindik ez dut ikusi ere egin liburua, Durangon ikusiko dut lehenengo aldiz. Oraingoan, mila ale ateratu dituzte euskaraz, eta bi mila gaztelaniaz.

**Egile moduan, lehenengo aldiz joango zara Azokara?**

Bai, bai, idazten dudana lehenengo liburua da hauxe, ni kazetaria naizelako, ez idazlea. Dena dela, bezero moduan sarritan joaten naiz Durangoko azokara. Batik bat, literatura bila joaten naiz. Nobelak begiratzen dituzte gehienbat, eta baita mendiko liburuak ere.



**OÑATI, OINEZ**  
Urdin Elortza  
Oñatiko Udala eta Zabaltzen

## Zertara joango zara Durangoko azokara?



**PELLO ZABALA**  
Frantziskotarra

Egun gehienetan joango naiz Durangoko azokara, hainbat helbururekin, gainera: batetik, Meteorologia Elkartearen *Eguraldia 2002* agenda aurkeztera; bestetik, liburu batzuk begiz jota ditut, tartean Joseba Sarrionandiarena, eta haiek erostera. Azkenik, Bitoriano Gandiagari egin zituen omenaldian ere parte hartu nuen.



**INMA DE MIGUEL**  
Kultura teknikaria

Urtero-urtero joaten naiz Euskal Liburu eta Disko azokara, eta aurten ere ez dut huts egingo. Batik bat, literaturako berrikuntzak ikustera eta erostera joango naiz aurten ere, ez bakarrik niretako, baizik eta umeendako ere bai. Horrez gain, ez dut uste azokaren inguruko kultura ekitaldietan parte hartuko dudarik.



**JULEN AREXOLALEIBA**  
Irakaslea

Erostera eta liburuen katalogoa begiratzen joango naiz Durangora. Irakaslea naizen aldetik, asko interesatzen zait liburuen katalogoa, gero bateren bat eskatu behar badut edo. Niretako, Sarrionandiaren berria eta, akaso, Mortadelo eta Filemonen euskarazko bertsioa erosi ditut. Posterrak, bitxikeriak... ikustea ere gustuko dut.



**MAITE ARISTEGI**  
EHNEko idazkari nagusia

Azken urteetan ezin izan dut joan. Aurten, ordea, gogoan daukat. Jendetza andana biltzen da, baina berdin da, poza eta alaitasuna ematen dit halako ekitaldi baten inguruan horrenbeste jende ikustek. Ez dakit zer erosi dudana, baina diru apur bat gastatzeko asmoarekin joango naiz. Alaba txikiarendako zer edo zer ere erosi ditut.



**IBAN GONZALEZ**  
Ekon-eko kide ohia

Urtero bezala, aurten ere musika bila joango naiz azokara. Poltsikoan gastatzeko asmoa dudana diru kopurua eramaten dut disko berriak erosteko. Gehienbat, talde berrien diskoak aurkitzen saiatzen naiz. Bestalde, lagunekin elkartera ere joaten naiz, talde askotako jendea ibiltzen da han-eta. Egun pasa polita egiten dugu Durangon.



**ARANTZAZU LOIDI**  
Itzultzailea

Elkarte edo erakundeek, Bertsosale elkarteak esaterako, erakusgai eta salgai zer duten, oro har zer gauza berri dagoen, zer jende dagoen saltokietan... ikustea gustatzen zait. Desagertuta daudenak edo erraz topatzen ez direnak interesatzen zaizkit. Hori bai, ikusi ez ezik erosi ere egiten dut. Baina ez naiz azken nobedadeen bila joaten.

# Disko Azokarako

ERIZANGO DIRA, ETA IBARREKO BISITARIAK ERE JOANGO DIRA AZOKARA

**DIEGO MARTIARTU / PUTZ-EKO ARDURADUNA**

*“Disko bat eta liburu bat ere salduko ditugu”*

**H**amabigarren zenbakia egingo du *Putz* aldizkariak, eta, iaz bezala, Euskal Liburu eta Disko Azokan saltokia izango dute *Putz*-eko lagunek. Aurten, hainbat ezuste prestatu dituzte.

**Zer edo zer berezirik prestatu duzue azokarako?**

Bai. Iaz bezala, aldizkariarekin batera, disko bat eta liburu bat ere aurkeztuko ditugu. Diskoa aldizkariarekin batera salduko dugu, hortaz, salneurria 4 eurora igo dugu, 660 peze-ta inguru. Liburua, ordea, bakarrik salduko dugu. Bestalde, jaialditxo bat ere egingo dugu egubakoitzean, Durangoko taberna baten: *Putz* eta *Ostiela*-ren irakurketak, kantaldiak, DJak... izango dira.

**Zerena da diskoa?**

Hamabost egileren hamasei ipuinen errezitaldia da, eta ipuin bakoitza, bere estiloari begira, musikatuta egin du Ibai Bengoa aretxabaletarrak. Musika estilo guztiak agertzen dira. Ipuin guztiak hari komu-

na dute, metroa, hain zuzen.

**Eta liburua?**

Asier Serranoren *Hoteleko kontuak* izeneko eleberria da, 110 orrikoa. Protagonista hotel batean dagoen persona bakarti bat da, eta bere gogoeten eta gertakizunen berri ematen digu. Liburuaren 1.500 ale ateratu ditugu. Harpidedunei, oparitu egingo diegu, iaz bezala.

**Aldizkariak berak zer eskaintzen duen aurrera dezakezu?**

Hamasei orriko gehigarri bat prestatu dugu, diskoko ipuinen letra guztiekin. Laburrak dira, 20-25 bat lerrokoak. Bestalde, Eduardo Galeanori ere tarte zabala eskaini diegu. Su Ta Gar eta EH Sukarra taldeetako Mikel eta Aitor Gorosabel musikariak izango dira beste protagonista batzuk; horiei elkarrizketabana egin diegu.

**Zer moduz iaz azokan?**

Oso gustura. Ondo ibili ginen. Kolaboratzaileen elkartzera, harpidedun berriak egitera... joan ginen. Saltsa haue-tan gabiltzanendako bilgune aparta da.



**PUTZ**  
Apokaliften Kultura  
Elkartea  
Apokaliften K.E.

**DAVID AZURZA / LAUSARDIKO ZUZENDARIA**

*“Lausardik disko bat grabatuko du laster”*

**T**olosarra izatez, Debagoiarekin harreman estua du David Azurzak: Bergarako Orfeoiko eta

Lausardi Koru Sinfonikoko zuzendaria da. *Horra Mari!* diskoa zuzendu berri du.

**Joan den asteburuan izan genuen Horra Mari! diskoa erosteko aukera, Bergaran.**

Bai, primizia moduan. Diskoan, Mari Domingiren ipuinen moldaketa musikatu dator; hori bai, Lausardik baino, Tolosa aldeko abesbatzek kantatua. Konposatzaile eta zuzendari lanetan neu aritu naiz; letrak Jose Mari Iturralde-renak dira, eta narratzaileak, Andoni Aleman.

**Zelan jaio zen diskoa egitearen ideia?**

Proiektu zabalago baten barruan. Gure helburua zen, alde batetik, diskoa grabatzea eta partiturak editatzea, eta diskoari ahalik eta zabalkunde handiena ematea; baina baita emanaldiak antolatzea ere. Debagoienean bezala, Tolosako Abesbatzen Txapelketan abestu genuen, eta


Burgos, Bilbo, Iruñea, Santander... alde-  
ra ere eramango da lana, hori bai, han-  
go koruek abestuta. Kubara eta Argen-  
tinara eramateko asmoa ere badago.

**Noiz eta non grabatu zenuten diskoa?**

Grabaketa Miramonen izan zen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan. Gero, Ausart Records etxe oriotarrak, euskal musika klasikoan espezializatuak, argitaratu du. Asteburu baten egindako grabaketa da; oso lan gogorra egin behar izan genuen. Azkar egiteko lana zenez, talde ari-  
na izatea ezinbestekoa zen; Lausardi bezalako koru han-  
di batekin ezin izango zen horrela egin.

**Ez da parte hartzen duzun lehenengo grabaketa, ezta?**

Ez. Bergarako Orfoia-  
rekin beste disko baten gra-  
baketan ere esku hartu izan  
dut, eta Debagoieneko  
abesbatzarekin, Lausardi  
Koru Sinfonikoarekin, bes-  
te bat grabatzeko asmotan  
gabilta. Arantzazun, Tomas Garbizuren  
omenaldia zela-eta udan abestu genuen  
Meza Benediktoa grabatuko dugu, urta-  
rrilean edo otsailean.



**HORRA, MARI!**  
Hainbat abesbatza;  
zuz.: David Azurza  
Ausart Records

## Ibarreko musikariak ere, Azokan

**D**ebagoieneko bi musikari beterano eta ezagun ere izango dira Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, nahiz eta euren azken lanak ez diren han berrikuntza izango, orain dela gutxi kaleratu zituzten-eta. Ruper Ordorika eta Juan Carlos Irizar oñatiarrei buruz ari gara.

**Ruper Ordorikak Hurrengo goizean bere azken diskoa izango du erakusgai eta salgai Durangon. Metak ziguiluk kaleratu du bilduma hori, Ruperren bederatzigarrena.**



**Oñatiarra dugu baita Juan Carlos Irizar piano jotzailea ere; berak bi proposamen eramango ditu Durangoko erakusmahaietara: Suhar, batetik, eta Gabon doinuak, bestetik, biak ere Ihardun Multimedia Gatzagako enpresak argitaratutakoak. Lehenengoan, piano jotzaileak bere lan intimista eta ezagun batzuen moldaketekin batera. Bigarrenean, hogeitalau gabon kanta oso ezagun jotzen ditu Irizarrek.**



### Geurean ere bai

**D**urangon ez ezik, ibarrean ere izango dugu euskarazko kultura produktuak erosteko aukera. Urtero bezala, Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka izango da Mondragoen; aurten, Arrasate Euskaldun Dezagun eta Txatxilipurdi elkarteek, eta herriko margolaritza, zeramika, taila, artisaugintza eta artista taldeek antolatu dute. Abenduaren 20tik 24ra izango da, Seber Altube plazako ludotekan.

Euskarazko liburu, disko, bideo eta CD-ROMak izango dira bertan salgai, baina ez hori bakarrik: herriko arte eta artisautza taldeen lanak ere eskaintzaren barne izango dira.

### Zenbat saltoki?

**J**oan aurretik, zenbat saltoki eta mota bakoitzeko zenbat proposamen izango dituzun aukeran jakin gura duzula? Bada liburuak dira jaun eta jabe: 774 izenbururen artean aukeratu ahal izango duzu. Diskoak 76 izango dira; aldizkariak, 37; lau bideo, software produktu bat eta bestelako 23 artikulua.

Horiek guztiak 245 erakusmahaitan banatuta izango dira, 38 argitaletzek, 22 talde kulturalak, 14 aldizkariak, 14 diskoetxek, zortzi erakundeak, sei banatzaileak, hiru unibertsitatek, bi aurrezki kutxak eta bi egunkariak Durangoraino, espresuki zeuretako ekarriak.

### Ibarreko Udalak

**B**akarka doazen idazle eta musikagileez gain, Debagoienak izango du beste ordezkariak: Badihardu-guk, Deba arroko euskalkia sustatzeko lan egiten duen elkarteak, hitzarmen bat sinatuko du aurki gure udalekin, eta Badihardugu Euskara Elkartea eta Deba Ibarreko Udalak izeneko mahaia antolatu dute. Bertan, gure ibarreko udalek prestatu edo argitaratu emandako liburuak erakutsi eta salduko dituzte. Gehienak euskararen ingurukoak izango dira, baina baita bestelako gaiak lantzen dituztenak ere. Iaz, *Arrasateko Euskeria* liburu-a dezente saldu zen Durangon.

### Zibertokia Azokan

**T**eknologia berriek gero eta indar handiagoa dute, eta Azokak horrela erakutsiko du. Alde batetik, berrikuntza moduan, Azokako gune elektronikoan, zibertokia ipiniko dute: 15 ordenagailu 96 metro karratuko azaleran, bisitariak sarean nabigatzeko aukera izan dezaten; gainera, Interneteko *www.durangokoa-zoka.com* orrian, albiste eguneratuak irakurri eta argazkiak ikusi ahal izango dira.

Gune elektronikoak berak gero eta garrantzi handiagoa du: aurten, hamaika erakusmahai izango dira han, tartean ENA elkarteak, Euskaltzaindia edo Gipuzkoako Foru Aldundiarenak.

### Irakurle txikiak

**U**me eta gaztetxoendako literatura txokoa berreskuratu du Gerediagak, urtebeteko etenaldiaren ondoren.

Txokoaren helburua ez da umeak zaintzea soilik, txikiak literaturara hurbiltzea, euskaraz irakurtzeko gogoa piztea eta umeak ipuinen magian barneratzea. Horretarako, hainbat begirale izango dira han, eta literaturarekin zerikusia duten ekintzak egin ahal izango dituzte umeak: abenduaren 5ean, antzerki saioa; eta, gainerako egunetan, goiz zein arratsalde, ipuin kontalariak, ilustratzaileak, antzerki lanak... egingo dituzte bertan.

### Katalogo osoa

**A**urtengo beste berrikuntza bat, Gerediagak urtero argitaratzen duen katalogoa da. Aurten ere aterako dute, baina oraingoa katalogo osoa izango da; hau da, orain arteko ekoizpen guztia bilduko du, agortutako produktuak izan ezik; hala ere, agortutakoak Azokaren web orrian bila daitezke.

Katalogoak 18.317 liburu, 1.593 disko, 514 bideo, 339 aldizkari, 230 multimedia produktu eta bestelako 338 bilduko ditu. Web orrian, 21.304 liburu, 1.648 disko, 380 aldizkari, 518 bideo, 232 software produktu eta bestelako 347 produktu aurki daitezke.

# Abenduak 5-14

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [erredakzioa@goiena.com](mailto:erredakzioa@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► **MacRea** aktore komiko irlandarrak bakarriketa egingo du egubakoitzean, abenduak 14, Gaztetxean, 22:00etan.

### BERGARA

► **Bederen I antzerki taldearen** *Laurel eta Hardy, zerura bidean* lana egubakoitzean, abenduak 14, Novedades aretoan, 22:30ean.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Aidar Gainullinen**, iazko Arrasate Akordeoi Lehiaketako txapelaren, kontzertua egunean, abenduak 6, Parrokian, 20:00etan.

### ARRASATE

► **Nazioarteko Akordeoi Txapelketa** jokatu da abenduaren 5etik 8ra bitartean, Amaia antzokian. Amaiera gala domekan, abenduak 8, izango da.

### BERGARA

► **Ultracuerpos (lehen The Virus) eta Barley Juice**ren kontzertua egubakoitzean, abenduak 7, Gaztetxean, 22:30ean.

► **Saxteiz** saxofoi laukotearen kontzertua zapatuan, abenduak 8, pilotalekuan, 19:30ean.

► **Flavor Flav of Public Enemy** taldearen kontzertua egunean, abenduak 13, Jam aretoan, 21:30ean.

► **Musika Eskolaren** kontzertua egubakoitzean, abenduak 14, pilotalekuan, 19:00etan.

► **De Phazz** taldearen emanaldia zapatuan, abenduak 15, Jam aretoan, 21:00etan.

### ELORRIO

► **Le Diablo Mariachi** taldearen emanaldia egubakoitzean, abenduak 14, Arriola aretoan, 22:30ean.

### OÑATI

► **Aitor Olea Juaristi** organu jotzailearen kontzertua zapatuan, abenduak 8, Arantzazuko Basilikan, bi zatitan: lehenengo, 12:00etako meza baino lehen; bigarrena, ondoren.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **Jose Antonio Laskurainen** margo erakusketa La Caixako bulegoan.

### DONOSTIA

► **Hegoko eskulangintzaren XVIII. erakusketa eta salmenta** antolatatu du Medicus Mundik abenduaren 9ra arte, Bulebar kaleko 1.ean.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Nagusiendako euskal dantzak.** Egubakoitzero, musika eskolan, 19:15ean. Lehendik izena emanda zutenek gain, jende berria ere etor daiteke.

► **Garapen Pertsonala taldea.** Hilean bi aldiz batuko dira, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

► **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izena ematea Kultura Etxean egin beharko dituzue, edo 943 71 10 27 zenbakira deituta.

► **Yogako hastapen ikastaroa.**

Eguaztenetan eta egubakoitzetan, 10:00etan, edo martitzenetan eta eguenetan, 20:30ean. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian jaso daitezke.

### ARRASATE

► **Afrikar perkusioa (dejembea) lantzeko ikastaroa** emango du Pedro Martinezek abenduaren 10ean hasita,

Gazteluondoko aretoan, 18:00etatik 20:30era. Matrikulak 3.500 pezeta kostatuko du, 21 euro. 943 79 80 25.

### BERGARA

► **Windows eta Microsoft-en hastapen** ikastaroa antolatatu du Udaleko Enplegu sailak urtariletik otsailera bitartean. Izenemate epea abenduaren 17tik 21era bitartean izango da, Udaletxeko Ongizateko Enplegu sailean. Talde bakoitzeko 12 lagun hartuko dituzte.

► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** izango da ekaina bitartean Zabalotegin. Argibideak: 943 76 19 17 edo 606 68 41 94.

► **Fandango eta Arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Gazteendako eta helduendako eskolak. 943 76 15 40.

► **Pintura ikastaroa** antolatatu du Beart elkarrekin. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideetarako, deitu 656 72 44 49 zenbakira.

► **Heziketarako psikomotritate praktikan bi urteko ikastaroa** eskaintzen du UNEDek, 2002ko urtariletik aurrera. Argibideak, 943 76 90 33 telefonoan.

## LEHIAKETAK

### BERGARA

► **Bergara Ezagutzen** lehiaketa antolatatu du Jardun elkarrekin 14 eta 18 urte bitartekoendako. Izena emateko azken eguna abenduaren 19a izango da. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonoetara.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Eskaparete lehiaketa** antolatatu du Aretxabaletako udal kultura sailak abenduaren 8tik 31ra bitartean.

► **Sahararen inguruko hitzaldia** egingo du Gurutze Irizarrek egunean, abenduak 13, Murruxiko taldearen lokalean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Hutsik dauden etxebizitzaren** inkesta egiten ari dira Udala eta Astiker enpresa, eta 700 etxebizitzatara joko

dute galdetegi bat betetzera. Zentsuaren etxebizitza galdetegiaren antzekoa da. Udalaren inkesta hori betetzea egokitzen zaien familiei, mesedez, inkestazaleak hartzea eskatzen diete.

► **Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa** antolatatu du Arrasate Euskaldun Dezagun elkarrekin. Donostian izango da finala, abenduaren 16an, domeka. Txartel arrunta 7.000 pezeta salduko da; prezioan, bidaia, bazkaria eta sarrera sartzen dira. Leku mugatuak daude. Argibideak 943 71 21 17 telefono zenbakian. Honezkeror izena eman dutenei dei egiten die AED elkarrekin, txartelak jasotzera eta ordaintzera lehen baihaen joan daitezten. Elkarrekin egoitzara jo beharko dute, Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira.

► **Bidezko Merkataritza azoka** antolatatu du Harreman GKEak abendu osorako, hilaren 5etik hasita. Seber Altube plazako frantziskotarren lokaletan egingo dute.

### BERGARA

► **Barnealdeko hegaziak ezagutzeko** behaketa irteera antolatatu du Pol-Pol mendizale taldeak abenduaren 15erako. Argibideetarako, deitu 943 76 48 51 telefonora.

► **Ibarreko erretratu zaharrak** biltzen dabil Jardun elkarrekin, datorren urteko egutegia prestatzeko. Laguntzeko interesa duzuenok, pasa zaitzete Kartzela Zaharreko bulegotik.

### OÑATI

► **Guraso Eskolan izena emateko epea** zabalik dago abenduaren 5era arte. Umezaroa, eskola porrota, anorexia eta bulimia, autoestimua eta beste hainbat gai landuko dituzte datorren ikasturtean.

► **Batxilergoaren ondorengo ikasketen gaineko** hitzaldia egingo du Teresa del Hoyo adituak egunean, abenduak 13, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

► **Oñatiko Gida Komertzialaren aurkezpena** egingo du Laixan elkarrekin eguaztenean, abenduak 5, Kultura Etxean, 19:00etan.

### DEBAGOIENA

► **Espainiako Konstituzioaren eguna dela-eta**, protesta ekintzak antolatatu ditu Segi taldeak. Egubakoitzean, abenduak 5, manifestazioa Arrasaten, 19:00ean. Egun berean, burundara Aretxabaletan, 00:00etan. Zapatuan, abenduak 6, Herri Eskolak antolatatu dituzte San Viatorren, Ikasle Abertzaleak taldearekin batera, 09:30.

## JAIK

### ARRASATE

► **Bedoña auzoko jaiak** ospatuko dituzte abenduaren 7tik 9ra bitartean. Jolasak, musika emanaldiak, karta txapelketak, afaria... izango dira.

► MUSIKA

### 'ARRASATE HIRIA' NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA

Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa abian da beste behin. Bederatzigarren urtez, munduko akordeoilari bikainenetarikoko batzuk lehiatuko dira dragoia, txapelketako sari gorenaren, eskuratzeko. Hamabi musikari izango dira guztira; horien artean, euskaldun bat, Edurne García irundarra. Emakumezkoak ere inoiz baino ugariago izango dira: García gain, Natalia Gudumac eta María Zaton moldaviarrak arituko dira. Amaiera gala jende aurrekoa izango da, eta baita orduan bertan egingo den sari banaketa ere: hori zapatu goizean izango da, Arrasateko Amaia antzokian. Nazioarteko lehiaketa-ekin batera, XXII. Gipuzkoako Txapelketa eta XIV. Gipuzkoako Jaialdia izango dira, ume eta gaztetxoendako.

**Non:** Arrasateko Amaia antzokian.  
**Noiz:** Abenduaren 5etik 8ra bitartean.





## FLAVOR FLAV OF PUBLIC ENEMY

Munduko Rap eta Hip Hop talderik ospetsueneko liderrak, hau da, Public Enemy taldeko Flavor Flav-ek, kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. Emanaldia hilaren 13rako, egubakoitzerako, iragarri dute. Sarreak 3.000 pezetan jarri dituzte salgai.

## ZINEMA

### GASTEIZ

► **American History X** filmaren emanaldia eguenean, abenduak 13, Mikeldi zineman, 20:00etan, Bagare Euskal Tokiak antolatutako Zinema Euskaraz egitasmoaren barne.

## MUSEOAK

### ARETXABAETA

► **On Jose Maria Arizmendiarrrieta museo-gela berriztatua.** Otarola jauregian, Urkulura bidean.

### ESKORIATZA

► **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalgo, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak, 943 71 54 53 zenbakian.

### LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi. Argibideak gura izanez gero, deitu 943 71 47 46 telefonora.

### AZPEITIA

► **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza, 8. Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era.

### DONOSTIA

► **Zientziaren kutxaespazioa.** Miramongo parkea. Martitzenetik zapatua, 10:00etatik 18:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 18:00etara.

► **Zientzia eta teknikaren erakus-keta interaktibo iraunkorra.** Telefonoa: 943 30 82 11.

► **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zapatua, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara. Taldeendako bisitaldi gidatuak izaten dira aurretik txanda eskatuz gero. 943 42 49 70.

► **Aquariuma.** Kai-Arriba, 34. Egutero, 10:00etatik 20:00etara. 943 44 00 99.

### ELGOIBAR

► **Makina-erremintaren museoa.** San Roke auzoa, 1. Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era.

### GETARIA

► **Cristobal Balenciaga** fundazioaren erakusketa. Aldamar parkea, 3. Martitzenetik zapatua, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara. Domeka arratsaldetan eta astelehenetan, itxita. 943 14 05 85.

# Zinema

### ARRASATE

#### ■ ALAI ZINEMA

**El pacto de los lobos**  
Eguaztena: 19:00, 22:00.  
Eguena: 17:00, 19:30, 22:00.

**Ni una palabra**  
Egubakoitzera: 19:00, 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

### BERGARA

#### ■ NOVEDADES

**Amelie**  
Egubakoitzera: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**Y tu mamá también**  
Eguena, abenduak 13: 20:00.

### OÑATI

#### ■ SANTA ANA

**Para todos los gustos**  
Eguena, abenduak 6: 20:00.

**Moulin Rouge**  
Egubakoitzera: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**10+2, el gran secreto**  
Domeka: 17:00.

**Abajo el telón**  
Eguena, abenduak 13: 20:00.

### EIBAR

#### ■ UNZAGA

**Harry Potter**  
Egubakoitzera: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ■ RIALTO

**Training Day**  
Eguena: 19:30, 22:15.  
Egubakoitzera: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

### ELGOIBAR

#### ■ HERRIKO ANTZOKIA

**La pareja del año**  
Eguena: 19:30, 22:15.  
Egubakoitzera: 22:15.

**A todo gas**  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 22:15.

**La banda del patio**  
Eguena eta domeka: 16:30.

### ELORRIO

#### ■ ARRIOLA

**Moulin Rouge**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

**Martina eta xagutxoak**  
Domeka: 17:00.

**Pizza, birra, faso**  
Eguena, abenduak 13: 20:15.

### GASTEIZ

#### ■ GURIDI

**Harry Potter**  
Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 16:45, 19:30, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 16:45, 19:30, 22:30, 01:15.

**Ni una palabra**  
Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.

**Spy game (juego de espías)**  
Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

#### El mosquetero

Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.

**El hada ignorante**  
Eguaztenetik eguenera eta astelehenetik eguaztenera: 17:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 01:00.  
Domeka: 22:30.

#### American Pie 2

Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

#### Amelie

Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

#### ■ MIKELDI ZINEMAK

**American Pie 2**  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.  
Egutero: 17:15, 20:00, 22:30.

**Ni una palabra**  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Egutero: 17:30, 20:15, 22:45.

**Spy game (juego de espías)**  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.  
Egutero: 17:15, 20:00, 22:30.

**La inglesa y el duque**  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Egutero: 17:30, 20:15, 22:45.

**Scary Movie 2**  
Egutero: 17:30, 22:45.

**Harry Potter**  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.  
Egutero: 17:00, 19:45, 22:30.

**Amelie**  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.  
Egutero: 17:15, 20:00, 22:30.

**El Mosquetero**  
Egubakoitzera eta zapatua: 20:15, 01:15.  
Egutero: 20:15.

#### Moulin Rouge

Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:15, 22:45.

**American History X (zinema euskaraz)**  
Eguena, abenduak 13: 20:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

#### ■ FLORIDA-GURIDI

**En construcción**  
Eguaztena, eguna eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El hijo de la novia**  
Eguaztena, eguna eta domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Astelehenetik eguaztenera: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.  
Eguena: 12:30, 17:30, 20:00, 22:45.

**Kandahar**  
Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

**Juana la Loca**  
Eguaztenetik eguenera eta domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

**El caso Pinochet**  
Eguaztena, eguna eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Eguena: 17:30, 22:30.

**Sin noticias de Dios**  
Eguaztena, eguna eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Shrek**  
Eguena, zapatua eta domeka: 12:15, 16:30, 18:15.

#### La zona gris

Eguaztena, eguna eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.  
Egubakoitzera eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

**Hana-Bi**  
Eguena, abenduak 13: 19:45.

**Cortada film laburren jaialdia**  
Abenduaren 10etik 13ra: 20:00, 22:30.

#### ■ STER ZINEMAK

**Ni una palabra**  
Egutero: 12:05, 16:15, 18:30, 20:50, 23:05, 01:20.

**Spy game (juego de espías)**  
Egutero: 12:05, 16:05, 18:25, 20:45, 23:00, 01:15.

**Training Day**  
Astelehenetik eguenera: 16:40, 18:55, 21:30, 23:50.

**Harry Potter**  
Egutero: 12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

**American Pie 2**  
Egutero: 12:10, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

**Moulin Rouge**  
Egutero: 20:00, 22:25, 00:55.  
Egubakoitzera: 17:40, 20:00, 22:25, 00:55.  
Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:00, 22:25, 00:55.

**El Mosquetero**  
Egutero: 12:35, 16:20, 18:35, 20:40, 22:50, 01:10.

**Atlantis**  
Egutero: 12:25, 16:35, 18:45, 20:55, 22:45, 00:40.

**Yamakasi**  
Egutero: 16:25, 18:40, 20:35, 22:30, 00:25.

**El Bosque Animado**  
Eguena, zapatua eta domeka: 12:20, 16:30, 18:15.

**Shrek**  
Eguena, zapatua eta domeka: 12:15.

Goizeko emanaldiak, zapatuan eta domekan.  
Gauekoak, egubakoitzean eta zapatuan.

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### Y TU MAMÁ TAMBIÉN

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Alfonso Cuarón.

**AKTOREAK:** Maribel Verdú, Gael García Bernal, Diego Luna.

Azken urteetan, Mexikotik etorritako film kopurua areagotu egin da. Arturo Ripstein zuzendari bikaina dugu Mexikoko zinematografiaren ordezkari famatuena, baina ez da bakarria. Joandako urtean, Alejandro González Iñárrituren *Amores perros* filmak nazioarteko arrakasta izugarria izan zuen, eta duela aste batzuk, gure hirietan estre-

natu da; eta orain, gure herri eta zineklubetatik agertzen hasi da Alfonso Cuarónen *Y tu mamá también* izenburuko azkeneko lana.

Alfonso Cuarón zuzendari mexikarra Mexikon bertan hasi zen zineman, eta gero, Estatu Batuetara joan zen. Han *Printzesa Txikia* eta *Esperantza Handiak* filmaren egokitzapen berria egin ondoren, jaioterrira bueltatu da *road-movie* jostalari, hausle, fresko eta gazi-gozo bat egitera.

Filmak hirukote xelebre baten arteko harremanak kontatzen dizkigu: erdi mailako bi gazte dirudunek eta euren baino hamar bat urte gehiago dituen emakume espainiarraren arteko harremanak, hain zuzen. Mutilek eta emakumeak jai baten ezagutuko dute elkar, eta itsaso aldera ihesaldi bidaia egitea erabakiko dute. Eta era horretako fil-



metan gertatzen den moduan, bidaia aurrera doan neurrian ikusleak, pertsonaien arteko harremanen bitartez (sexualak eta beste motatako harremanak), bakoitzaren benetako nortasuna eta benetako buruhausteak ezagutzeko

aukera izango du. Mutilen heldugabetasunak eta apetatsu izaerak hainbat momentu dibertigarri emango dituzte, baina filma aurrera doan neurrian eta, batez ere, bukaeran, ikusiko dugu irribarrea garrazten doala eta usteak erdia ustel bihurtuko direla, mutilendako iniziazio bidaia da-eta.

Estiloari dagokionez, filmak kamera mugikorra erabiltzen du; narratzaile batez baliatzen da, bere kabuz istorioari hainbat iruzkin egiten diona; ez da estetikatik arduratzen; eta momentu askotan oso iraupen handiko planoetan filmatzen du aktoreen lan bikaina (hondartzako txosnako eszena adibide nabarmena dugu). Elementu horiekin bilatutako orden gutxiko, askatasun eta freskotasun itxura lortzen du.

ANTONIO ZABALA

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Oñati.** 88 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Garajea du. 943 78 05 96 edo 626 43 99 72.

**Arrasate.** Antxo Abarkan etxebizitza salgai. 67 m<sup>2</sup>. Jantzita. 943 77 13 44.

**Urbasa.** Urederra inguruan etxea salgai; beheko sua, eta abar. 80 m<sup>2</sup>. 6.500.000 pta. 639 98 51 88.

**Oñati.** Logela bateko apartamentua salgai. Erdialdean. 943 78 01 09. Gauzez.

**Bergara.** Martokuan etxebizitza salgai. Bi gela, sukalde berrituta, berogailua. 943 76 08 08 edo 629 46 47 22.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Lekeitio.** Lorategia duen etxebizitza ematen da errentan. Bi logela bikoitz. 94 624 35 85.

**Aretxabaleta.** Etxe handia ematen da errentan. Lehentasuna: ikasleak eta langileak. 943 79 63 49. Gauzez.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzako. 943 79 98 30.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza behar da errentan hartzeko hiruzpalau hilabeterako, obrak direla-eta. Konfiantzazko familia. Presazkoa. 659 65 24 69.

**Arrasate.** Etxebizitza behar da errentan hartzeko. 626 74 10 81.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdialdean etxebizitza osatzeko pertsona

bat behar da. Merkea. 943 79 25 10 edo 943 77 02 17.

**Eskoriatza.** Sukaldea erabiltzeko aukerarekin logela ematen da errentan. 943 71 55 01.

**Arrasate.** Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 650 89 12 20 edo 669 57 88 51.

**Arrasate.** Bi lagun behar dira etxebizitza baten logela konpartitzeko. 609 13 39 70.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Zurraderon garajea salgai. 1.750.000 pezeta. 943 76 04 87.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Boni Laskurain kalean garajea ematen da errentan. 943 76 10 58.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Maalako Errabala kalean 27 m<sup>2</sup>ko lokala ematen da errentan. 658 75 72 85.

**Bergara.** Urtarriletik aurrera lokala ematen da errentan. 77 m<sup>2</sup>. Deitu arratsaldez. 943 76 20 42.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta ume-

### 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAK OSATU  
106. BESTELAKOAK

### 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

### 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

### 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

### 5. IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK  
502. ESKAERAK  
503. BESTELAKOAK

### 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
603. KONPONDU  
604. BESTELAKOAK

### 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

### 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

### 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

### 10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

# 943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### ARAMAIO

**DUKIENA JATETXEAN SUKALDARIA BEHAR DA**

945 44 50 86  
ORDUTEGI INTERESGARRIA

### BERGARA

**ESPERIENTZIADUN MARGOLARIK BEHAR DIRA BERGARAN**  
943 76 97 31

### BERGARA

**ANTXONI JATETXEAK SUKALDARIA BEHAR DU ASTE BUKAERETAN**  
943 76 20 40

### ARRASATE

**ARRASATEKO TABERNA BATEN ZERBITZARIA BEHAR DA**  
943 79 20 00

ak zaintzeko. 677 00 12 46.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbiketarako egiteko, umeak zaintzeko... egun osoz edo orduka. 943 79 52 53 edo 626 57 80 33.

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko emakumea gertu. Goizko 08:00etatik 10:00etara edo 13:00etatik 16:00etara. 943 76 29 52. Deitu 10:00etatik 13:00etara.

### 402. ESKAERAK

**Bergara.** Neska gertu garbiketarako egiteko. Astean bi egunez, 15:00etatik 18:00etara. 943 76 36 68.

## LAN BILA

**Neska gertu garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko**  
620 51 34 25

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. ESKAINTZAK

**Eskola partikularrak ematen dira:** Fisika, Matematika, Informatika eta Elektronika. 619 86 97 76. Deitu 19:00etatik 22:00etara. Iker.

**Arrasate.** Lizentziadun batek Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak behar ditut. 943 79 06 24 edo 943 79 83 46.

**Arrasate.** DBHko laugarren mailako eskola partikularrak behar ditut. 943 79 06 24 edo 943 79 94 52. Trini.

### 502. ESKAERAK

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 61 31. Gauzez deitu.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako laguntza eskolak ematen dira. 649 22 51 07.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Moto gorria salgai.** Ondo dago. 943 77 14 59. Aritz.

**Peugeot (125 cm<sup>3</sup>) motoa salgai.** 2.000 Km. 943 71 43 78.

**Audi 90** 2200 salgai. 300.000 pezeta. 943 76 47 77.

**Gas-Gas** Enduro 135 motoa salgai. 250.000 pezeta. Sei urte. 606 17 21 28. Jose Antonio.

**Gas-Gas** 250 motoa salgai. 1998koa. Matrikulatua. Oso gutxitan erabiltza dago. 585.000 pezeta. 652 71 74 93.

**Yamaha SR** 250 mota salgai. Oso egoera ona. 943 76 23 43.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Espaniel** arrazako txakurrak opari egiten ditut.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Eskaierak** igotzeko BH Sherpa eta muskulazio BH Home Gin makinak salgai. Erabili barik daude. 943 76 50 63.

**Fagor** markako butanoko berogailua salgai. 10 litro. Bi urte. 15.000 pezeta. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 76 72 61.

**Akordeioa** salgai. Botoiduna. 120 baxu, lau ahots, eta vaseti deskonektatzailea. 943 78 14 72.

**Tecno** markako gurgipiletako hagin eta estalkiak salgai (205/55/15). 150.000 pezeta. 943 76 47 50. Alberto.

**Vitus** 979 bizikleta salgai. Shimano 105-600 STI, Mavic 3TTT. Ondo dago. 669 03 59 63.

**Pentium** ordenagailua salgai. 120 mhz, 8 mb RAM, 1,2 G-ko disko gogorra, Sound Blaster. 15eko monitorea, ... 45.000 pezeta. 669 33 50 14.

**Roller** Phenix 474 karabana salgai. 4,75 m. 943 79 80 53. Deitu 20:00etatik aurrera.

**Pirateatutako** PlayStation 2 salgai. Hiru joko. 35.000 pezeta. 943 77 14 57. Aritz.

**Mendiko bizikleta** salgai. Estreinatuta barik dago. 18 abiadura. 25.000 pezeta. 943 79 28 21. Eider.

### 806. GALDU

**Bergara.** Elorregi auzoan setter arrazako txakurra zuribeltza galdu dut. 943 76 34 66 edo 678 43 31 07.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Loteriako partaidetza-bartela topatu dut Anaren eta Jabierren izenean. 649 54 63 65.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Haizea taberna parean Opel Kadett SS-4578-A autoak izan zuen golpea ikusi zuenak mesedez dei dezala 943 79 19 78 telefonoa.

**Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate** Donostia-ra doan norbait behar da bidaiaren gastua erdibana egiteko. Autoa nik eraman dezaket. 653 71 92 45.

**CLUB  
IYOLA**

Elgetara bidea  
**BERGARA**  
943 76 11 29

## JAKINARAZPENA

**MONDRAGON HOTELARI** beste izar bat eman diote. Hori horrela, aurreantzean **HIRU IZARREKO HOTELA** IZANGO DA.

Gure hotelaren helburu nagusia egunez egun hobetuz joatea da, eta herriari, ibarrari eta bisitari guztiei zerbitzu hoberena eskaintzea.

Horrek guztiak animatu egiten gaitu, eta esfortzua egingo dugu zuei arreta eta zerbitzu hobea eskaintzeko.

## HOTEL MONDRAGON:

- 43 gela. Bainugela, berogailua, aire girotua, telefono zuzena, interneterako konexioa, kutxa gotorra.
- 2 suite.
- Jangela: karta, eta era guztietako ospakizunak antolatzen ditugu.
- Kafetegia, piano-taberna.
- Aparkaleku pribatua.
- Autoak errentan hartzeko zerbitzua.

Bitori etorbidea, 16 • ARRASATE

Tel.: 943 71 24 33 Faxe: 943 71 23 43 • WWW.hotelmondragon.com

**JAIOTAKOAK**

**María Muñoz Paz.** Arrasaten, azaroaren 23an.  
**Aimar Gabilondo Iturriaga.** Bergaran, azaroaren 25ean.  
**Mikel Murua Otxoa.** Aretxabaletan, azaroaren 26an.  
**Xabier Ugalde Duñabeitia.** Eskoriatzan, azaroaren 27an.  
**Unax Arana González.** Bergaran, azaroaren 27an.  
**Malen Arana Errasti.** Arrasaten, azaroaren 27an.  
**Unax Pereda Axpe.** Arrasaten, azaroaren 30ean.  
**Ibone Alonso Sánchez.** Arrasaten, azaroaren 30ean.

**HILDAKOAK**

**Justo Ibane Zubizarreta.** Aramaion, azaroaren 28an. 90 urte.  
**Félix garai Etxabe.** Arrasaten, azaroaren 28an. 80 urte.  
**Jacinta Sagastizabal Agirre.** Oñatin, azaroaren 29an. 87 urte.  
**Rafael Vitoriano Agirre.** Eskoriatzan, abenduaren 1ean. 79 urte.  
**Angel Anduaga Unamuno.** Oñatin, abenduaren 1ean. 83 urte.  
**Caridad Zabala Iñarra.** Bergaran, abenduaren 2an. 83 urte.  
**Felipe Armentia Murua.** Aretxabaletan, abenduaren 2an. 70 urte.  
**José Antonio Odría Orbegozo.** Arrasaten, abenduaren 3an. 73 urte.



**Lara García González** mondragoetarra, **Ania** ahizpa eta **Gloria** amarekin. Azaroaren 25ean jaio zen, eta 3,5 kilo pisatu zuen. **Alberto** da aita, mondragoetarra.



**Malen Arana Errasti** mondragoetarra eta **Bego** ama, aramaioarra. Malen azaroaren 27an jaio zen, eta 2,600 kilo pisatu zuen. **Iñaki** da aita, mondragoetarra.



**Jaione Otaño** eta **Fernando Blázquez** bergararrek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte datorren astean. Izan ere, duela **25 urte** ezkondu ziren, 1976ko abenduaren 11n, hain zuzen ere. Etxekoekin ospatuko du bikoteak urteurrena. Zorionak, bikote, familiako guztien partez, eta urte askotarako!

**GOIENKARIA**  
Eskelen prezioa:  
10.000 pezeta.

**ESKER ONA**

**Jesus Maria Garaiz Iturbe**

**Bergaran** hil zen 2001eko azaroaren 25ean.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**

**Caridad Zabala Iñarra**

*G. Amasorrainen alarguna*

**Bergaran** hil zen abenduaren 2an.

Bere heriotza eta hileta-elizkizunetan lagun izan zaituztegun guztioi, eskerrik asko sendikoen izenean.



**ESKER ONA**

**Caridad Zabala Iñarra**

*G. Amasorrainen alarguna*

**Bergaran** hil zen abenduaren 2an.

Seme-alabon esker ona bere bizitzako azken urteetan zaindu eta alaitu duzuen Mizpirualdeko kide guztiei.



**6 aire-poltza**  
**Zenbaki hutsa baino, konfiantza kontua da.**

Zein punturaino fida zaitzke auto batekin? Puntu goreneraino. Gehitu egin dugu, baita irabazi ere. Sei aire-poltsez (aurrean 2 adimendun; alboetan 2; eta sabaian 2, aurreko eta atzeko bidaiariendako gortina antzekoak) eta ABSz gain, zure eskura jartzen ditugu segurtasunerako hainbat elementu moderno: EVA (larrialdiko balaztatzeari asistentzia); REF (balaztatzearen banaketa elektronikoa); ECS (lesio zerbikalak ekiditeko babes sistema); istripua gertatuz gero, hankak babesteko sistema eta direkzioak gidariari kalterik ez egiteko sistema; eta ESP (egonkortasunaren kontrol dinamikoa). Xehetasun guztiak eta kontrol osoa.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HD1 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

**PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA**

ETORMOBIL	EKOMOBIL	OÑATI GARAJEA
Otaola etorbidea, 22 943 20 09 66 943 20 09 96 EIBAR	Zaldispe auzoa, z/g 943 79 50 71 943 79 97 12 ARRASATE	Goribar auzoa, 9 943 78 13 50 OÑATI

**307** **PEUGEOT**



## ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

**ARIES**  
martxoak 21-apirilak 21

Lanean denbora larregi ematen duzu, eta horrek bakartasun sentsazioa eragingo duzu, ingurukoekin egoteko astirik ez daukazulako. Bekaizkeriak jota zure gaineko gezurak esango dituen lagun bat utziko duzu.

**TAURUS**  
apirilak 22-maiatzak 21

Egoera berriei aurre egiteko beldur zara, eta horrek aukera ederrak galarazi diezazkizuke lanean. Ez itzazu baztertu, eta aztertu. Zaindu zeure burua eta hartu ezitia, bestela, ezta iriak arazoak emango dizkizu.

**GEMINI**  
maiatzak 22-ekainak 21

Arazoak ingurukoekin, jarrera oldarkorra izango baituzu, eta beti arrazoiak daukalkoan ez diezulako beste arretarik jarriko. Kontuz ea zer jaten duzun, urdailak eskertuko ditu.

**CANCER**  
ekainak 22-uztailak 22

Laneko baldintzekin ados ez zauden arren, hauxe ez da aldaketak egiteko une egokia. Jarraitu lanean eta ikasten, gutxi barru emaitzak ikusiko dituzue. Zaindu zeure burua gaixotzerik nahi ez baduzu.

**LEO**  
uztailak 23-abuztuak 22

Kontuz gutzietan uzten duzun diruarekin, hil amaieran beharko duzu eta. Lanean hobera egingo duzu, eta horrek soldata igotzea ekarriko du.

**VIRGO**  
abuztuak 23-irailak 22

Bai lanean bai familian, liskarrak konponduko dituzue hitz eginez. Senideei gauzak argi utzi beharko dizkiezu, euren arazoak zure ardurapean uzteko joera dute-eta.

**LIBRA**  
irailak 23-urriak 22

Lana dela eta batetik bestera ibili beharko duzu, eta ondorioz, senideen falta igarriko duzu. Utzi abenturatzeko ekonomikoak beste baterako.

**SCORPIUS**  
urriak 23-azaroak 22

Ondo pasatzeko eta ardurak ahazteko daukazun gogoaren ondorioz, egin beharrik alboratuko dituzue, eta horrek arazoak ekar diezazkizuke. Ez zaitzen presaka ibili, orkatila okertu dezakezu eta.

**SAGITTARIUS**  
azaroak 23-abenduak 21

Laneko arrakastak bekaizkeria eragingo du zure ingurukoengan, eta beharbada, batzuk zu kaltezen ahaleginduko dira. Baliteke pisua handitzea likido-ehuspenaren ondorioz.

**CAPRICORNUS**  
abenduak 22-urtarrilak 20

Hainbeste kostatu zaizkizun lan hobekuntzak heldu dira, eta horrek poztasuna ekarriko duzu. Baina ardura gehiago izango duzu aurrerantzean, eta laguntza eskatu beharko duzu. Estresaren ondorioz gaixotu zaitzake.

**AQUARIUS**  
urtarrilak 21-otsailak 20

Ingurukoekin hotz jokatzeko duzu, eta ondorioz arazoak edukiko dituzue, bikotearekin bereziki. Hoberako aldaketak lanean.

**PISCIS**  
otsailak 21-martxoak 20

Gero eta egin behar gehiago edukiko duzu, ikastaroren bat egin beharko duzulako. Horrek, ingurukoekin egoteko astia kenduko duzu, eta ondorioz estresatuta ibiliko zara. Kontuz ibili gaixotzerik nahi ez baduzu.

## UMOREGIROAN/ Iztar Aperribai

### BI GAUZA

Bi lagun:

- Joxe, hik, bi millioi pezeta euki ezkerok, bat lagako noston?
- Bai, Migel, badakik baietz.
- Eta, bi itsasontzi euki ezkerok?
- Bai, bai, ez euki dudarik.
- Eta, bi auto euki ezkerok?
- Txo, txo, geldi, hik badakik bi auto jauzkatela!

juan giñanian eta autua ostu zostenian, hi beti nere onduan.

- Bai, hala dok.
- Beste behin, mendira juan giñanian eta txorkatillia bihurtu nebanian, hi han, laguntzeko prest, nere onduan...
- Bai, akordatzen nok bai.
- Hi ez haiz gafia izango?

### BETIKO LAGUNAK

Betiko laguna ospitalian azkenengotan zeguala eta, juan da Manuel bisitxara:

- Akordatzen haiz, Sabin, aspaldi denda bat jarri nebala eta ur haundixek aurretik eruan zebela dendia eta dana. Akordatzen haiz, ezta? Eta, hi beti nere onduan, lagun fiña.
- Bai, bai.
- Eta, beste behin, oporretan

### TXISA PARETAN

Aitxa-amak oso seme alaba bihurrikak zeuzken. Hain zien bihurrikak, behin logelako paretia txisaz margotu zebela. Eta aitxa-amak euren artian.

- Ba, hau Mikel izan da. Amak, ostera:
- Ez, Amaia izan da.
- Zela izan bihar da Amaia, txisa paretan.
- Bai, hau bere letria da!

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



### Zein elementu ez dago Debagoieneko harmarrian?

Aurreko astean esan bezala, 1977an sortu zen Debagoieneko Mankomunitatea eta urte horretan bertan antolatu zuen mankomunitatearen harmarria sortzeko lehiaketa bat. Asmatuko ote zenuke ondorengo lau elementuetatik zein ez dagoen harmarri horretan?

- Lis lorea
- Ilargia
- Eguzkia
- Arranoa



la eta arranoak Ohati.  
Frantzun zuzena: Lis loreak Aramailo ordezkatzeko du; Ilargiak Antzu-

## HITZGEZIDUNAK


Luma

	Deitura		Eztena		Aiar
	Atsegina		Legea		
	Hosto				
	Askata-suna				
Izena	Arabako herria				
60 segundoko tariteak	Txipreko hiriburua				
Elea				Oxigenoa	
Giltza				Itzulia	
				Boroa	Beldurti
				Emakume izena	
Zein tokitan			...tak, erloju-hots		
Baso mota			Prezio		
Hiltzaile	Metal erakarleak				
	Norat atzizkia				Bokala
					Ez eme
Bokala	Interjekzioa			Kanpo	
Sarrera	Bokala			Röntgen	
			Hosto		

## BILABILA7



## SOLUZIOAK



A	T	E	•	O	R	R	I
•	•	•	A	I	•	A	T
E	R	A	I	L	E	•	A
•	•	N	A	M	I	•	•
B	A	S	O	B	E	R	A
I	K	•	N	O	N	•	•
•	B	•	V	A	K	O	G
O	•	A	Z	I	T	H	•
K	A	U	T	I	N	U	M
A	I	A	•	O	•	•	•
R	I	•	•	•	•	•	•
A	L	A	V	•	•	•	•
•	Z	•	E	•	•	•	•

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

## TELEBEGI

### Gerra kazetariak

**J**ulio Fuentes eta beste hiru kazetarien hilketak beste hainbat kazetariaren asmoa zapuztu zuen, eta, oraingoz, egoera hobetu ez denez, kazetari batzuek Pakistanen jarraitzen dute bertatik berri ematen. Eta, egoera honetan kazetari horiek bidaltzen dituzten kronikek, *Al filo de lo imposible* saioko gidoiaren antz izugarria dute. Mendizaleen helburua mendi tontorrera heltzea bada, kazetariak Kabul dute jomugan. Baina, askotan eguraldia mendizaleentzat oztopo izaten den moduan, kasu honetan errepidean dauden gaizkileak dira kazetariaren oztopo. Horrela, kazetaria Kabulera iritsi ezina bihurtu da albiste, eta egunak joan, egunak etorri, ezintasun horren adierazgarri diren kronikak entzuten ditugu. Adierazgarria ere, zelan agurtzen dituzten kazetari horiek hemendik: "zaindu zaitetz", "zorte on"...

Batzuek, berriz, lortu dute Jalalabadeko bide arriskutsua gurutzatzea, eta halako kasuetan kazetariak egindako balentria bilakutzen da albiste. "Gure berriemaileak lortu du Kabulera iristea...", "Gureak, berriz, Afganistango biderik arriskutsuena zeharkatu du Alaren laguntzaz".

Gerra kazetariak informatzaileak izango dira, baina nire ustez, abenturazaleak ere badira. Baina ez dakit zergatik, gerra berriemaile batek halakorik aitortzea ez da polita izaten. "Abenturazalea zara?" galderaren aurrean, kazetariaren erantzuna beti bera izaten da: "Ez, nire lana informatzea da". Julio Fuentesen gainean asko idatzi eta esan da, eta badirudi misiolari bat-edo izan zela, baina inoiz ez abenturazale bat. Gerrarik gerra dabilen kazetaria, informatzeko beharrak bakarrik mugitzen ote du?



MARIA AGIRRE

MAITE ALBES/ SOINUZ BLAI SAIOKO AURKEZLEA

## "Oraindik ere asko ikasi beharra daukat"

**M**aite Albes arrasatearra da. 20 urte ditu, eta aurtengo ikasturtean *Soinuz blai* saioko aurkezlea da. Urrian hasi zen saioa aurkezten Ugutz Usandizaga aretxabaletarrarekin batera. Baina aurkezpen lanak egiteaz gain, Maitek ikasi ere egiten du. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan ingeniari itza ikasten ari da. Horrezaz gain, aerobicoko irakasle ere bada.

### Zelatan *Soinuz blai*-ko aurkezle?

Telebistaren mundua asko gustatu izan zait beti. Saioa aurkezteko proposamena jaso nuenean ez nuen bi aldiz pentsatu; baiezkoa eman nuen.

### Zein da zure lana?

Bideoklipak aukeratu, sarrerak presatu, gidoia ikasi eta aurkeztu.

### Lan zaila da?

Ez, nik egiten dudana behintzat oso erraza da.

### Ezagutzen al zenuen telebista lehenagotik?

Telebistak asko erakarri izan nau beti. Horregatik hartu nuen parte AEDK antolatutako telebista eta antzerkiaren inguruko ikastaroetan. Ikastaro horietan kameraren erabilpenak ezagutu nituen.

### Telebista, imajinatu zenuen modukoa da?

Badira harritu nauten hainbat gauza, baina bai, horrelako zerbait izatea espe-



Maite Albes, *Soinuz Blai* saioko platoon

ro nuen. Esaterako, ezberdintasun handia dago pertsona bati hitz egitearen eta objektibo bati hitz egitearen artean. Kamerari hitz egitea hotzagoa da. Baina, dena dela, asko gustatzen zait.

### Nola ikusten duzu zeure burua telebistan?

Arraro samar: egiten ditudan keinuak,

ahotsa...; ikusten dudana da, ikasteko asko dudala oraindik.

### Zein harreman duzu musikarekin?

Asko gustatzen zait musika, betidanik. Denetik entzuten dut. Gehienbat Hip-Hop estiloko taldeak eta apur bat gogorragoak direnak ere bai. Etxean, autoan, beti irratia

piztuta izaten dut. Musika entzuten dut beti eta, gainera, oso altu jartzen dut.

### Musika talde gustukoena?

Hip-Hop-ero bat esango dut: CPV, Club de los Poetas Violentos.

### Musika, entzuteko ala dantza egiteko?

Dantzarako. Asko gustatzen zait dantza egitea. Dantza ikastaro askotan parte hartu dut: euskal dantzak, jazz, aerobica... duela urte eta erdi inguru hasi nintzen aerobicoko eskolak ematen.

### GOITB ikusteko ohiturarik baduzu?

Bai, gero eta gehiago gainera. Ez dut denbora handirik izaten telebista ikusteko, baina etxean egonez gero beste edozein kate ipini baino lehen GOITB ikusten dut.

### Zer falta zaio *Soinuz blai*-ri?

Ikusleen parte hartzea. Ondo egongo litzateke adibidez, e-mailez jendeak proposamenak egitea, kantuak eskaintzea....

### Etorkizunean zer izan edo egin nahi duzu?

Ingeniaritza ikasten ari naiz eta gus-tatuko litzaidake, adibidez, Ikerlan beza-lako enpresa batean ikerketa lanak egitea. Lagunek, gimnasio bat zabaldu eta aerobicoko irakasle izango naizela esaten didate askotan. Eta telebistan, ba bueno, zergatik ez? Ez dakit.

SAIOA OJANGUREN



## Asteko programazioa / Urria 7-13

EGUBAKOITZA 7	ZAPATUA 8	DOMEKA 9	ASTELEHENA 10	MARTITZENA 11	EGUAZTENA 12	EGUENA 13
Ez dago emisiorik.	14:00 <b>Gatza eta berakatza</b>  <b>Xeleberri</b> Iratxe Eguen eta bere lantaldea bideo xelebreenekin etorriko dira oraingoan ere.  <b>Iparrorratza</b> Banoa bidaia agenzia-aren eskutik eta Julen Aranguren aurkeztuta, Brasil bisitatuko dugu Iñigo Olaziregi lagun.  <b>Alkatearekin berbetan</b> Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkatearen txanda izango da.	14:00 <b>Gatza eta berakatza</b>  <b>Xeleberri</b> Iratxe Eguen eta bere lantaldea bideo xelebreenekin etorriko dira oraingoan ere.  <b>Iparrorratza</b> Banoa bidaia agenzia-aren eskutik eta Julen Aranguren aurkeztuta, Brasil bisitatuko dugu Iñigo Olaziregi lagun.  <b>Alkatearekin berbetan</b> Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkatearen txanda izango da.	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Alkatearekin berbetan</b> 15:15 <b>Berriak</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Goienasport</b> Asteburuan gure kirol taldeek jokaturako partiden errepaso zabala. 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b>	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Goienasport</b> 15:15 <b>Berriak</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Xeleberri</b> 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Iparrorratza</b> Ixabel Alkainek Australian zehar egindako bidaia kontatuko digu.	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Xeleberri</b> 15:15 <b>Berriak</b> 15:30 <b>Iparrorratza</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Ekilan</b> Enpresa hizpide duen saioa, Alberto Gorritibereak aurkeztuta. 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b>	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Ekilan</b> 15:15 <b>Berriak</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Sarrera doan</b> 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Soinuz blai</b>

## Atzeskua

MAIDER OSA

# Jokin Etxaniz/Pilotaria

**A**tzo bertan entzun nion bati: "Pilotariak? Horiek bai bizi!"

Aste barruan nahiko ongi bizi gara, baina hori esaten duena seguru asteburuetan ez dela gurekin akordatzeko. Besteek jai dutenean guk lanean aritu behar izaten dugu.

**Pilota ala pilotariak daude modan?**

Garbi dago pilotari bat modan dagoela: Mikel Goñi. Bestalde, telebistak ere bultzada handia ematen dio pilotari.

**Neskazale eta parrandazale fama duzue.**

Ez da hori nire kasua. Parranda egitea gustatzen zaigu, baina denoi bezala. Eta neskazale? Telebistan agertzearen ondorioz jendeak ezagutu egiten zaitu gehiago, baina hortik aurrera, ezer gutxi.

**Aitari zor diozu pilotari izatea?**

Baietz uste dut. Aita pilotaria ez balitz, seguru ni ere ez nintzatekeela izango. Pilota nahiko kirol indibiduala da, eta gaztetan taldekako

kirolak egiteko joera dago, lagun taldearekin. Nahikoa sufritzen nuen entrenatzera joaterakoan.

**Zer da samurragoa: pilotan jokatzeko ala aita izatea?**

Pilotan jokatzeko ez da erraza, nahiz eta horrela dirudien. Bestalde, aita izaten ere, ikasi egiten da, eta ni orain hasi naiz ikasten. Dena dela, uste dut gehiago egiten dutela amek.

**Telebistaz ikusten dena baino askoz ere bizkar zabalagoa duzue pilotariok, aurrez aurre ikusita.**

Horren atzetik gimnasio ordu asko daude. Halere, atzelari batzuk badira berez nahiko indartsuak direnak, eta izugarriko gorputza dutenak.

**Binaka jokatzeko atzelari ideala?**

Badira oso atzelari onak: Elkoro, Zezeaga, Lasa, Goñi III... Oso gustura aritzen naiz horiekin.

**Asegarce, Aspe... pilotariok enpresa faltarik ez duzuela esan liteke.**

Ez, baina lehen, pilotariok urte gehiago egiten zituzten profesionaletan jokatzeko. Hor dago Ariznabarretaren kasua: 31 urterekin bota egin dute.

**Eskutik helduta zoazte pilotariok?**

Bakoitzak bere zilborrari begiratzen diola uste dut.

**Nork irabaziko du lau eta erdiko txapelketa?**

Zaila izaten da asmatzea. Faboritua Eugi da, baina edozer gauza gerta daiteke, finala partidu bakarrak erabakitzen baitu. Denak defendatzen dira oso ongi, eta sorpresak ere egon daitezke.

**Zein iritzi duzu ondorengo pilotariei buruz?**

**Jose Mari Zezeaga:** Beti alboan eduki dudana laguna.

**Goñi II:** Dena eduki eta irabaz dezakeen pilotaria.

**Retegi:** Pilotari oso ona izan dena, baina...



**"Aita izaten ere ikasi egiten da, eta ni orain hasi naiz ikasten"**

**"Eskutik sortu da, baina pilotariok ez goaz eskutik helduta. Bakoitzak bere zilborrari begiratzen diola uste dut"**

**"Aita pilotaria ez balitz, seguru ni ere ez nintzatekeela izango"**

► Bergararra / 31 urte / Aspeko pilotaria

## PIPERRAUTSA

### Arantza

**G**oienako zuzendari postua uztera nindoa-la, GOIENKARIAN elkarrizketa egin zidaten. Eta han aipatu nuen hiru udalen faltak arantza uzten zidala, bestela pozgarria izandako lanean. Arantza hori oraintsu atera didate.

Falta ziren hiru udalek eta Goienak adostu berri dute lankidetzarako bidea. Oraindik hastapena da eta zenbait gai zehazteke dago. Egin dutena ikusita, ordea, pozak hartu du nigan arantza haren tokia.

Pozak hartu nau alde guztiek egin dutelako ahalegin handia gaia bideratzeko. Euskal Herri honetan, tamalez, okertzen hasita dagoenak erraz egiten du okerrera, zuzentzea nekezago izaten da. Oraingoan, berriz, oker hasitakoa zuzentzeko gaitasuna egon da.

Pozgarria da, era berean, aurrez Goienako bazkide baziren beste sei udalek erakutsi duten zintzotasuna. Betiere, falta zirenei gonbita egin izan diete, eta pazientziak itxaron dute bitartean. Chapeau! (edo txapel! esaten hasteko ordua da?).

Badago Debagoiena mitifikatzeko arriskurik. Sarriegi entzuten dira gehiegizko laudorioak, hemen egiten dena beste inon egiterik ez balego, edo perfektioaren atarian bageunde moduan.

Debagoiengan ez gara perfektuak, guk dakigu ondoen. Baina oraingo pasarte honek argi uzten du, behin berritua, lankidetzabideak adosteko dugun gaitasuna. Horretan datza eskualde honen indarra.

MIKEL IRIZAR

# Caravanas Oñate, S.A.L.



- Karabanen salmenta
- Bizikleten konponketa eta salmenta
- Txirrindulariendako osagarriak

Zubillaga auzoa, 20  
 OÑATI  
 Tel.: 943 71 63 50  
 Faxa: 943 71 60 91  
 Posta-e: c.onate@euskalnet.net